MOTOROLA

E365



# Telefonoaren erabilera-gida.

MOTOROLA

# Ongi etorri

Ongi etorri Motorolaren komunikazio mugikor digitalaren mundura! Zorionak Motorola T365 GSM telefono mugikorra aukeratzeagatik.



MOTOROLA eta M estilizatuaren logotipoa erregistratuta daude AEBetako patenteen eta marka erregistratuen bulegoan. TrueSync, Sidekick, Starfish eta Stylized Starfish logotipoa Starfish Software, Inc.-en marka komertzial erregistratuak dira (Starfish Software, Inc. Motorola Inc.en enpresa subsidiario independentea da). Aipatzen diren gainerako produktu- eta enpresa-izenak haien jabeen marka komertzialak dira. © Motorola, Inc. 2003

Gida honetan **azaldutako Motorolaren produktuek** Motorolaren edo hirugarrenen softwarea eduki dezakete, erdieroalezko memorietan edo bestelakoetan grabatuta, egilearen eskubideek babestuta. Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako legeek Motorolari eta beste software-fabrikatzaileei eskubide berezi batzuk eman dizkiete egile-eskubideek babestutako softwareari buruz; besteak beste, software hori banatzea edo erreproduzitzea debekatzen duten eskubideak. Horren arabera, egile-eskubideek babesten dituzten softwareak, Motorolaren produktuetan badaude, ezingo dira aldatu, banatu edo erreproduzitu eta atzeranzko ingeniaritza ere ezingo zaie aplikatu legearen aurka. Gainera, Motorolaren produktuak erostea ez da hartu behar lizentziatzat –zuzenekoa edo inplikaziokoa, alegaziokoa edo bestelakoa–, egile-eskubidetzat edo Motorolaren edo beste software-fabrikatzaileen patente edo patenteen aplikaziotzat. Erabilera arrunterako lizentzia bakarrik ematen du, ez erabilera esklusiboa eta eskubiderik gabea, produktua saltzetik inplizituki sortua.

# Menuen diagrama

## Menu nagusia

**Mensajes ***
- Crear
- Entrada
- Plantillas
- Band Salida
- Borrador
- Buzón Voz
- Configuración
  - Nº Buzón Voz
  - Entrada
  - Servicio Inform
  - Borradores

**Juegos**
- Magic II
- Bolos
- Té Burbujas
- Big 2 Garden
- Pacific Storm
- Config Sonido
- Config Vibrac

**Despertador**

**Chat ***
- Empezar Chat
- Histórico
- Borrar Histórico

**Acceso Directo**

**Perfiles**
- Normal
- Reunión
- Exterior
- Microteléfono
- Varios

**Herramientas**
- Calendario
- Calculadora
- Marcación Fija

**Configuración**
- (joan hurrengo orrira)

**Más**

**Agenda**

**Llamadas**
- Recibidas
- Realizadas
- Perdidas
- Bloc
- Temp Llam
- Coste

**Multimedia**
- Nueva Imagen
- Álbum Fotos
- Imagen
- Animación
- Melodía
- Nota Voz
- Descargar
- Espacio Libre

**Timbre**

**Cámara**

**Wap ***

**Nota Voz**

**Accesos Web**

***Oharra:*** *Menuaren elementu osagarriak ikusteko, hautatu* **Más** *menuan azaltzen denean.*

Diseinu hau menu estandarrarena da. Antolaketa eta menuko funtzioen izenak beste batzuk izan daitezke zure telefonoan. Baliteke funtzio batzuk erabiltzaile guztientzat erabilgarri ez egotea.

*  hautazko sarea, SIM txartela edo harpidetzaren araberako funtzioak

# *Konfigurazioen menua*

- **Personalizar**
  - Grupos Llamadas
  - Mensaje Gráfico
  - Fondo Pantalla
  - Animación
- **Perfil WAP**
  - Definir
  - Configurar
- **Acceso Rápido**
- **Desvío Llamadas**
  - Voz
  - Cancelar
- **Estado Tfno**
  - Mis Nº Tfno
  - Crédito
  - Línea Activa
- **Llam Entrante**
  - Temp Tiempo
  - Config Coste
  - Identif Llam
  - En Espera
- **Seguridad**
  - Bloquear Tfno
    - Bloqueo Ahora
    - Bloqueo Autom
    - Códig Desbloq
  - Bloquear Teclas
  - Bloqueo Auto
  - Marcación Fija
  - Bloqueo Llam
    - Llam Salientes
    - Llam Entrantes
    - Cancelar
  - PIN SIM
  - Contraseñas
    - Códig Desbloq
    - Código Seg
    - PIN SIM
    - PIN2 SIM
    - Código Bloqueo
- **Config Inicial**
  - Hora y fecha
  - Encendido/Apagado
  - Rellamada
  - Iluminación
  - Idioma
  - Ahorro Batería
  - Reinicio
  - Borrado
- **Red**
  - Redes
  - Configurar

| Zuzeneko sarbideak |
|---|
| **Deiak jasotzeko/egiteko egoeraren menua ikusteko:**<br>Sakatu deiak egiteko/jasotzeko egoeran |
| **Egindako deien zerrenda ikusteko:**<br>Sakatu deiak egiteko/jasotzeko egoeran |
| **Ahots-etiketen zerrenda irekitzeko:**<br>Sakatu luze deiak egiteko/jasotzeko egoeran |
| **Teklatua blokeatzeko:**<br>Sakatu |
| **Menuen sistematik irteteko:**<br>Sakatu menu batean |

* hautazko sarea, SIM txartela edo harpidetzaren araberako funtzioak

# Aurkibidea


**Menuen diagrama** .....3
**Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa** .....9
**Sarrera** .....17
Paketearen edukia .....17
Erabiltzailearen eskuliburuari buruz .....17
SIM txartela aldatzea .....18
Bateria jartzea .....20
Bateria kargatzea .....21
Bateria erabiltzea .....21
Telefonoa piztea .....23
Bolumena doitu .....23
Deiak egitea .....24
Deiak jasotzea .....25
**Telefonoa erabiltzen ikastea** .....26
Pantaila erabiltzea .....26
4 noranzkoko nabigazio-tekla erabiltzea .....28
Menuak erabiltzea .....29
Testua idaztea .....31
Telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea .....38
Kodea edo pasahitza aldatzea .....40
Kodea edo pasahitza ahaztu bazaizu .....41
Teklatua blokeatzea eta desblokeatzea .....41
Argazkiak ateratzea eta irudi-mezuak bidaltzea .....42
**Telefonoa konfiguratzea** .....45
Zure izena eta telefono-zenbakia gordetzea .....45
Ordua eta data doitzea .....45
Txirrin-mota konfiguratzea .....45
Erantzuteko modua konfiguratzea .....46
Pantailaren hondoa konfiguratzea .....47

Pantaila-babesa hautatzea ....47
Pantailaren kolorea konfiguratzea ....48
Argia doitzea ....48
Bateria aurreztea ....48
**Dei-funtzioak** ....49
Aktibo dagoen linea aldatzea ....49
Berriro deitzea ....49
Dei-identifikazioa erabiltzea ....50
Sarrerako deia bertan behera uztea ....50
Larrialdi-zenbakia markatzea ....51
Nazioarteko zenbakiak markatzea ....51
Jasotako edo egindako dei-zerrendak kontsultatzea ....51
Erantzun ez den deia itzultzea ....53
Zenbakien blokea erabiltzea ....54
Markaketa bizkorra ....54
Markaketa Turbo Diala ....55
Ahots-postontzia erabiltzea ....55
Deia zain ....56
Deia zain uztea ....57
Deien transferentzia ....57
**Mezuak** ....58
Mezuen sarrerako ontzia konfiguratzea ....58
Mezuak, irudiak eta soinuak bidaltzea ....58
Testu-mezuak ohar gisa bidaltzea ....60
Bidalitako testu-mezuen egoera bistaratzea ....61
Testu-mezuak jasotzea ....61
Testu-mezuak irakurtzea edo ezabatzea ....62
Informazio-zerbitzuen mezuak irakurtzea ....63
Txata erabiltzea ....64
**Telefono-aurkibidea konfiguratzea** ....68
Sarrerako xehetasunak bistaratzea ....68
Telefono-aurkibideko sarrerak sortzea ....69
PIN kode bat telefono-zenbaki batekin gordetzea ....70

Ahots-etiketa bat telefono-aurkibideko sarrera batean grabatzea ............................72
Telefono-aurkibideko sarrerak markatzea ................................................................73
Telefono-aurkibideko sarrera bat aldatzea ...............................................................74
Telefono-aurkibideko sarrerak ezabatzea ................................................................74
Dei-taldeak erabiltzea ..............................................................................................74
Telefono-aurkibideko sarrerak sailkatzea .................................................................76
Telefono-aurkibideko sarrerak kopiatzea .................................................................76
Telefono-aurkibidearen edukiera egiaztatzea ...........................................................77
**Telefonoa pertsonalizatzea** ..........................................................................................79
Profil bat hautatzea edo aldatzea .............................................................................79
Alerta-tonuak sortzea eta aldatzea ..........................................................................80
Menuko hizkuntza aukeratzea ..................................................................................84
Aukera guztiak berrabiaraztea .................................................................................85
Datu guztiak ezabatzea ............................................................................................85
Bizkor sartzeko menua erabiltzea ............................................................................85
**Telefonoaren beste funtzio batzuk** ..................................................................................88
Deia konferentzian ...................................................................................................88
Deiak desbideratzea .................................................................................................89
Deiak blokeatzea ......................................................................................................90
Markaketa finkoa ......................................................................................................91
Telefonoaren erabilera kontrolatzea .........................................................................92
Sare-konfigurazioa doitzea .......................................................................................95
**Antolatzaile pertsonalaren funtzioak** ................................................................................96
Egutegia erabiltzea ...................................................................................................96
Iratzargailua erabiltzea ............................................................................................101
Kalkulagailua erabiltzea ..........................................................................................102
**Segurtasuna** .................................................................................................................105
SIM txartela blokeatzea ..........................................................................................105
**Albisteak eta aisialdia** ....................................................................................................107
Wap nabigatzailea erabiltzea ..................................................................................107
Irudien eta animazioen bisorea ..............................................................................111

Jokoak erabiltzea ....................................................................................................113
**Arazoak konpontzea**....................................................................................................115
**Absortzio Espezifikoaren Koefizienteari buruzko datuak** .......................................123
**Mugatutako Bermeari buruzko informazioa** ............................................................125
**Aurkibide alfabetikoa** ..................................................................................................131

# Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa

ERABILTZEN ARI GAREN BITARTEKO SEGURTASUNARI ETA ERAGINKORTASUNARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

IRAKURRI INFORMAZIO HAU TELEFONO MUGIKORRA ERABILI AURRETIK.

Dokumentu honetako informazioak 2002ko abenduaren 1a arte argitaratu diren erabilera-eskuliburuetan dagoen informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa ordezten du.

### Irrati-maiztasuneko (RF) energiarekiko esposizioa

Zure mugikorrak transmisore eta hartzaile bana ditu. ON konektatuta dagonean, RF energia jasotzen eta transmititzen du. Telefono mugikorrarekin komunikatzean, telefono mugikorrak transmititzen duen energia-maila kontrolatzen du deiak kudeatzen dituen sistemak.

Motorola telefono mugikorra bereziki diseinatuta dago gizakiak RF energiaren eraginpean egoteari buruz herrialde bakoitzean dauden legeak betetzeko.

### Erabilera-neurri egokiak

Telefono mugikorra ongi erabiltzen dela bermatzeko eta, aplikatu beharreko neurrien arabera, gizakiak RF energiaren eraginpean era seguruagoan egon daitezen, segitu beti jarraibide hauei:

### Kanpoko antena zaintzea

Erabili soilik Motorolak emandako edo horren ordez baimendutako antena. Baimenik gabeko antenak erabili, aldaketak egin edo osagarriak ipintzen badira, telefono mugikorra honda daiteke.

EZ ukitu antena komunikagailu pertsonala ERABILTZEN ARI ZARENEAN, antena ukitzeak deiaren kalitatean eragiten baitu eta telefono mugikorra behar baino potentzia-maila handiagoan ibiltzea eragin baitezake.

Gainera, baimenik gabeko antenak erabiltzen badira, herrialdean aplikatu beharreko araudia urra daiteke.

### *Telefonoaren funtzionamendua*

Deiak egitean edo jasotzean, erabili telefono mugikorra telefono finkoak edo kable bidezko telefonoak erabiltzen dituzun bezalaxe.

### *Funtzionamendua, unitatea soinean daramazula*

RF energiarekiko esposizioari buruzko jarraibideak betetzeko, telefono mugikorra soinean eramaten baduzu eta transmisioren bat egiten baduzu, jarri beti komunikagailu pertsonala Motorolak telefono mugikor horrentzat emandako edo onartutako euskarri, zorro, kutxatila edo tresna batean, eskura duzunean betiere. Motorolak onartu gabeko osagarriak erabiltzeak eragin dezake RF energiarekiko esposizioa jarraibideetan ezarritako mugen gainetik egotea. Motorolak onartutako edo emandako gorputz-osagarriren bat erabiltzen ez baduzu eta telefono mugikorra normal erabiltzeko posizioan ez baduzu, ziurtatu telefono mugikorra eta antena gutxienez 2,5 cm-ko (hazbete bat) distantzian daudela transmititzen ari denean.

### *Datu-eragiketa*

Telefono mugikorraren datu-funtzioren bat erabiltzen baduzu, kable-osagarriarekin edo hori gabe, jarri telefono mugikorra eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ra (hazbete bat).

### *Baimendutako osagarriak*

Motorolak onartu gabeko osagarriak erabiltzeak –bateriak eta antenak barne, baina ez horiek soilik– eragin dezake RF energiarekiko esposizioa jarraibideetan ezarritako mugen gainetik egotea. Baimendutako osagarriak ezagutzeko, sartu gure web orrian: www.motorola.com.

### *RF energiaren interferentzia eta bateragarritasuna*

***Oharra:*** *Ia gailu elektroniko guztiek izan ditzakete interferentziak kanpo-iturrietako RF energiarekin, ongi blindatuta ez badaude eta RF energiarekiko bateragarritasuna eskaintzeko diseinatuta edo konfiguratuta ez badaude.*

Batzuetan, telefono mugikorrak interferentziak eragin ditzake.

### *Instalazioak*

Itzali telefono mugikorra hori adierazten duten oharrak dauden lekuetan. Ospitaleetan eta osasun-zentroetan, besteak beste, kanpoko RF energiarekiko sentikorrak diren ekipoak erabiltzen dituzte batzuetan.

### *Aireontziak*

Aireontzi batean zaudenean, itzali telefono mugikorra hala eskatzen dizutenean. Telefono mugikorrak aplikatu beharreko legeen arabera tripulazioak emandako jarraibideei kasu eginez baino ez dira erabili behar.

### *Gailu medikoak*

#### Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek gomendatzen dute telefono mugikorren eta taupada-markagailuen artean, gutxienez, 15 zentimetroko (6 hazbeteko) distantzia uztea. Taupada-markagailua duten pertsonek neurri hauek hartu behar dituzte kontuan:

- Telefono mugikorra BETI taupada-markagailutik 15 zentimetrora (6 hazbete) edo urrunago eduki behar dute konektatuta dagoenean.
- Ezin dute komunikagailu pertsonala bular pareko patrikan eraman.
- Taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarria erabili beharko dute interferentziak izateko aukera murrizteko.
- Interferentzia dagoela uste badute, berehala itzali beharko dute komunikagailua.

**Entzuteko aparatuak**

Zenbait telefono mugikor digitalek interferentziak sor ditzakete entzuteko zenbait aparaturekin. Interferentzia hori gertatuz gero, kontsultatu entzuteko aparatuaren fabrikatzailearekin, zein aukera dauden jakiteko.

**Beste gailu mediko batzuk**

Bestelako gailu mediko pertsonalak erabiltzen badituzu, kontsultatu gailuaren fabrikatzailearekin RF energiaren kontrako blindaje egokirik duen jakiteko. Zure medikuak lagun diezazuke informazio hori eskuratzen.

## *Ibilgailuak gidatzean*

Kontsulta ezazu gidatzen den bitartean telefono mugikorra erabiltzeari buruz dagoen legeria. Egin kasu beti. Gidatzen ari zarenean telefono mugikorra erabiltzen baduzu:

- Kontuz gidatu eta jarri arreta osoa errepidean
- Baldin baduzu, erabili esku libreko ekipoa.
- Irten errepidetik eta aparkatu ibilgailua deiak egin edo erantzun baino lehen.

## *Ohar operatiboak*

### *Airbaga duten ibilgailuak*

Ez jarri telefono mugikorra airbagaren gainean, ezta airbaga puzten den lekuan ere. Airbagak indar handiz puzten dira. Telefono mugikorra airbaga puzten den lekuan jarri badugu eta hura puzten bada, telefono mugikorra indar handiz jaurti daiteke eta kalte larriak eragin diezazkieke ibilgailuan doazen pertsonei.

### *Lehertzeko arriskua duten atmosferak*

Itzali mugikorra leherketak gertatzeko arriskua dagoen atmosferako guneetara sartu baino lehen, baldin eta telefono mugikorra 'segurtasun intrintsekoko guneak' izeneko guneetan erabiltzeko bereziki homologatua ez badago.

Gune horietan, ez atera komunikagailua eta ez instalatu edo aldatu bateriarik. Lehertzeko arriskua dagoen guneetan, baterien txinpartek leherketak edo suteak sor ditzakete eta kalteak edo heriotza eragin.

***Oharra:*** *Goian aipatutako lehertzeko arriskua duten eremuak hauek dira, besteak beste: erregaia hornitzeko guneak –gasolina-zerbitzuguneak–, itsasontzien sotoak, erregaiak edo substantzia kimikoak biltegiratzeko edo lekuz aldatzeko instalazioak, airean substantzia kimikoak edo partikulak –adibidez, aleak, hautsa edo partikula metaliko meheak– dauden guneak edo lekuak, edo normalean ibilgailuaren motorra itzaltzeko esaten zaizun beste edozein leku. Lehertzeko arriskua duten atmosferako guneak, normalean, argi adierazita daude, baina ez beti.*

### *Detonazioguneak eta detonagailuak*

Lehergaien detonazio-eragiketekin egon daitezkeen interferentziak saihesteko, itzali komunikagailu pertsonala detonagailu elektrikoetatik hurbil zaudenean, lehergaien detonazioguneetan edo “Itzali ekipo elektronikoak” idazkunak dauden guneetan. Egin kasu idazkun eta jarraibide guztiei.

### *Bateriak*

Bateria guztiek kalte materialak edo gorputzeko lesioak –lesioak edo erredurak– eragin ditzakete, material eroaleren batek (adibidez, bitxiak, giltzak edo kate metalikoak) terminalak ukitzen baditu. Material eroaleak zirkuitu elektrikoa itxi dezake (zirkuitulaburra) eta gehiegi berotu. Kontuz ibili kargadun bateriak erabiltzerakoan, batez ere, patriketan, eskuko poltsetan edo objektu metalikoak egon daitezkeen bestelako lekuetan jartzean. Erabili Motorolaren jatorrizko bateria eta kargagailuak soilik.

Zure bateriak edo telefono mugikorrak ikur hauek izan ditzakete; horien esanahia hau da:

| Ikurra | Definizioa |
|---|---|
|  | Segitu beharreko informazio garrantzitsua. |
|  | Bateria eta telefono mugikorra ez dira sutan jarri behar. |
|  | Bateria eta telefono mugikorra tokiko legeen arabera birziklatu behar dira. Informazio gehiago behar baduzu, jarri harremanetan agintari eskudunekin. |
|  | Bateria eta telefono mugikorra ez dira zakarretara bota behar. |
| ⊖ LiIon BATT ⊕ | Telefono mugikorrak litio-ioiezko bateria du. |

## *Epilepsia-krisiak edo zorabioak*

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak edo zorabioak izan ditzakete keinuka dauden argien eraginpean, hala nola, telebista ikustean edo bideo-jokoetan aritzean. Litekeena da epilepsia-krisi edo zorabio horiek sekula horrelakorik gertatu ez zaien pertsonei ere gertatzea.

Argi keinukarien eraginpean epilepsia-krisirik izan baduzu edo zure familian bateren batek izan badu, mesedez, galdetu medikuari mugikorrarekin bideo-jokoetan jolastu edo argi keinukariak aktibatu baino lehen (argi keinukarien aukera ez dago modelo guztietan).

Gurasoek kontrolatu egin behar dituzte seme-alaben telefonoko bideo-jokoen erabilerak edo argi keinukarien aukerak. Sintoma hauetakoren bat duen pertsona orok erabiltzeari utzi eta medikuarengana joan behar du: konbultsioak, begien edo muskuluen mugimendu konbultsiboak, konortea galtzea, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa.

Sintoma horiek azaltzeko probabilitatea gutxitzeko, mesedez, hartu neurri hauek:

- Ez jolastu edo ez erabili argi keinukaririk nekatuta edo loguratuta bazaude.
- Hartu atseden gutxienez orduko 15 minutuan.
- Argiak piztuta dauden lekuetan jolastu.
- Jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.

### *Lesio-adierazgarri errepikatuak*

Telefono mugikorreko jokoetan aritzean, batzuetan, eskuetako, besoetako, sorbaldako, belaunetako edo gorputzeko beste ataletako mina senti daiteke. Segitu jarraibide hauei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo hezurretako edo muskuluetako beste lesiorik ez izateko:

- Hartu atseden gutxienez orduko 15 minutuan.
- Jolasean zabiltzala eskuetan, eskumuturretan edo besoetan nekea edo mina sentitzen baduzu, gelditu eta hartu atseden hainbat orduz berriz jolasten hasi baino lehen.
- Jolasean ari zarela edo jolastu ondoren, oraindik ere, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta badituzu, ez jolastu gehiago eta galdetu medikuari.

## *Europako Batasuneko jarraibideekiko adostasun-deklarazioa*

Honen bidez, Motorolak honakoak betetzen dituela adierazten du

- bete beharreko baldintzak eta 1999/5/EE jarraibideko gaiari buruzko gainerako xedapenak
- Europako Batasuneko gaiari buruzko gainerako jarraibideak




Aurreko taulan Produktuaren Onarpen Zenbakiaren ohiko adibide bat ikus daiteke.

www.motorola.com/rtte orrian ikus dezakezu 1999/5/EE jarraibidearekiko (R&TTE jarraibidea) Adostasun-deklarazioa zure produktuarentzat. Zure Adostasun-deklarazioa topatzeko, sartu zure produktuaren etiketako Produktuaren Onarpen Zenbakia web orriko "Bilaketa" barran.

# Sarrera

## Paketearen edukia

Telefono mugikorra bateriarekin eta kargagailuarekin saltzen da normalean. Beste osagarri batzuk eros daitezke, telefonoa pertsonalizatzeko, etekin hobea lortzeko eta joan-etorriak errazteko.

## Erabiltzailearen eskuliburuari buruz

Eskuliburu honetan zure Motorola telefono mugikorraren ezaugarriak eta funtzionamendua deskribatzen dira.

### Aukerako funtzioak



Harpidetzaren araberakoak eta aukerakoak diren eta, agian, gune geografiko guztietan zerbitzu-hornitzaile guztiek eskaintzen ez dituzten sareak, SIM txartelak edo funtzioak identifikatzen ditu etiketa honek. Informazio gehiago nahi baduzu, jo zure hornitzailearengana.

### Aukerako osagarriak




Etiketa honek Motorola Original™ osagarriren bat behar duten funtzioak identifikatzen ditu.

## *SIM txartela aldatzea*

SIM txartelak (harpidedunaren identitate-modulua) telefono-zenbakia, zerbitzuaren zehaztapenak, mezuen memoria eta telefono-aurkibidea ditu.

**Kontuz:** Ez tolestu, ez urratu SIM txartela. Ahal dela ez dezala ukitu elektrizitate estatikoa, ura edo zikinkeria

**Ekintza**

**1** Deskonektatu telefonoa itzaltzeko tekla sakatuz.

**2** SIM txartela ateratzeko, sakatu bateriaren estalkia eta lerratu atzerantz.




**3** Atera bateria.



**4** SIM txartela ateratzeko, lerratu kontu handiz txartela beherantz, atera arte.



**Ekintza**

**5** Sartu SIM txartel berria zirrikituan kontu handiz, telefonoan adierazten den bezalaxe.
Ziurtatu SIM txartelaren hozka beheko eskuineko ertzean dagoela.



**6** Aldatu bateria eta haren estalkia.



## *Bateria jartzea*

Bateria jarri eta kargatu egin behar duzu telefonoa erabiltzeko.

Telefonoaren diseinuak Motorolaren jatorrizko bateria eta osagarriak bakarrik erabiltzeko aukera ematen du. Bateria erabili behar ez duzunean, zorro babeslean edukitzea aholkatzen da.

**Ekintza**

**1** Atera bateria plastikozko estalki babesgarritik, hala behar izanez gero.

Bateria aldatu behar baduzu, kontuan izan telefonoak deskonektatuta egon behar duela.

**2** Sakatu bateriaren estalkia eta lerratu atzerantz ateratzeko.

**3** Kendu bateria zaharra, hala behar izanez gero.




**4** Jarri bateria berriaren konexioak telefonoaren konexioekin batera.



**5** Sakatu bateria konexioetarantz eta egin indarra beherantz klik entzun arte.

**6** Aldatu bateriaren estalkia.

## *Bateria kargatzea*

Bateria berriak zertxobait kargatuta etortzen dira. Telefonoa erabili baino lehen bateria ipini eta kargatu egin behar duzu, behean azaltzen den bezalaxe. Bateria batzuek errendimendu hobea izaten dute zenbait karga-/deskarga-zikloren ondoren.

| Ekintza | |
|---|---|
| **1** | Konektatu bidaiarako kargagailua telefonoari.<br>***Oharra:*** *Konektorea orientatuta dago eta zentzu bakarrean instala daiteke soilik.*  |
| **2** | Entxufatu bidaiarako kargagailuaren beste muturra korronte-hartunera. |
| **3** | Telefonoan **Carga completa** ipintzen duenean, kendu bidaiarako kargagailua. |

Bateria kargatzen ari denean, pantailaren eskuineko goiko ertzeko maila-adierazleak prozesuaren egoera zein den adierazten du.

## *Bateria erabiltzea*

Bateriaren errendimendua faktore askoren araberakoa da; besteak beste, hauen araberakoa: zure operadorearen sare-konfigurazioa, estaldura, telefonoa erabiltzen den inguruneko tenperatura, aukeratu eta erabiltzen diren funtzioak edo konfigurazioak, osagarrien konexio-atakari konektatutako elementuak eta ahots- eta datu-aplikazioak eta beste hainbat erabiltzeko parametroak.

**Iradokizuna:** Luze jokatzen aritu edo kamera eta WAP nabigatzailea gehiegi erabiltzen bada, bateriaren iraupena murritz daiteke. Bateria aurrezteko, ezarri **Iluminación Desactivar** aukera (48 or.) eta **Ahorro Batería Activar** aukera (48. or.).

**Kontuz:** Lesioak edo erredurak gerta ez daitezen, ez utzi bateriak objektu metalikoak ukitzeko moduan edo haren terminalek zirkuitulabur bat sortzeko moduan.

Bateriak gehiago iraun dezan:

- Erabili beti Motorola Original™ bateriak eta bateria-kargagailuak. Telefonoaren bermeak ez ditu bere gain hartzen Motorolak homologatu gabeko bateriak eta/edo bateria-kargagailuak erabiltzeagatik sortutako kalteak.
- Bateria berriek edo denbora askoan biltegian egon direnek, agian, denbora gehiago beharko dute kargatzen.
- Kargatzen ari denean, eduki bateria giro-tenperaturan.
- Ez eduki bateria -10°C (-10,00°C) baino gutxiagoko eta 45°C (45,00°C) baino gehiagoko tenperaturan. Ez utzi telefonoa ibilgailuan, hura uzten duzunean.
- Bateria denbora luzean erabili behar ez baduzu, jaso aireztatutako leku lehor eta ilunean.
- Denborarekin, bateria gastatuz joaten da eta denbora gehiago behar du kargatzeko. Normala da hori. Bateria normal kargatuta ere hizketan aritzeko denbora gutxitzen ari dela edo kargatzeko denbora handitzen ari dela ikusten baduzu, agian bateria berria erosteko garaia iritsi da.

Telefono honen berriz karga daitezkeen bateriak behar bezala ezabatu behar dira eta birziklatu egin daitezke. Ikusi etiketan zein bateria-mota den. Birziklatzeko moduari buruzko informazioa eskuratzeko, kontsultatu tokiko administrazioan. Ez bota inoiz bateria sutara, lehertu egin baitaiteke.

## *Telefonoa piztea*

**Ekintza**

**1** Luze sakatu ⓞ Pizteko/itzaltzeko/amaitzeko tekla

Pizteko/itzaltzeko/amaitzeko tekla



**2** Behar izanez gero, sartu SIM txartelaren PIN kodea eta sakatu **ACEPTR** ( ) SIM txartela desblokeatzeko.

**Kontuz:** Hiru aldiz segidan okerreko PIN kodea sartzen baduzu, SIM txartela desaktibatu egiten da eta telefonoak **SIM bloqueada** mezua bistaratzen du.

**3** Behar izanez gero, idatzi 4 digituko desblokeatze-kodea eta sakatu **ACEPTR** ( ) telefonoa desblokeatzeko.

***Oharra:*** *Fabrikan finkatutako desblokeatze-kodea 1234 da (informazio gehiago izateko, ikus 40. or.).*

## *Bolumena egokitzea*

Hitz egiten ari zarela, sakatu ezkerrerantz eta eskuinerantz entzungailuaren bozgorailuaren bolumena doitzeko.

Teklatuaren edo txirrinaren bolumena doitzeko:

**Joan funtzio honetara:** > **Perfiles** > *perfil activo* > **Editar**

✓ ikurrak profila aktibatuta dagoela adierazten du. Hauek ezar daitezke:

| Profilaren konfigurazioa | Deskribapena |
|---|---|
| Volumen | Sarrerako dei baten alerta-soinuaren bolumena |
| Tono Teclas | teklak sakatzean egiten duten soinua |

## *Deiak egitea*

Hitz egiten ari zarela, ez blokeatu telefonoaren goiko aldeko antena integratua.




| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** teklatuko teklak | telefono-zenbakia markatzeko<br>**Iradokizuna:** Nahasten bazara, sakatu ELIMIN ( ) azken digitua ezabatzeko edo luze sakatu ELIMIN ( ) digitu guztiak ezabatzeko. |
| **2** | deia egiteko |
| **3** | deia amaitzeko eta telefonoa esekitzeko |

## *Deiak jasotzea*

Dei bat jasotzen duzunean, telefonoak jo edo bibratu egiten du, edo jo eta bibratu batera egiten du, eta dei bat sartzen ari dela adierazten duen mezua bistaratzen du.

| | Ekintza |
| --- | --- |
| **1** | Sakatu edo **RESPON** ( ) |
| **2** | Sakatu (amaitzeko tekla) deia amaitu duzunean. |

***Oharra:*** *Telefonoa blokeatuta badago, desblokeatu egin behar da deiari erantzuteko.*

# Telefonoa erabiltzen ikastea

Ikus 1. orrialdea, telefonoaren oinarrizko diagrama ikusteko.

## Pantaila erabiltzea

Deiak jasotzeko/egiteko egoera (ikus beheko marrazkia) deirik egiten ari ez zarenean edo menurik erabiltzen ari ez zarenean bistaratzen den pantaila estandarra da. Deiak jasotzeko/egiteko moduan egon behar du telefono-zenbaki bat markatzeko.




Deiak jasotzeko/egiteko egoeran pantailaren behean erdialdean bistaratzen den (menuaren) adierazleak adierazten du menuko tekla ( ) saka daitekeela, menu nagusia azaltzeko eta beste funtzio batzuk ikusteko.

Beheko ertzetako etiketek erabil ditzakezun pantaila-teklen funtzioak bistaratzen dituzte. Sakatu pantailako ezkerreko tekla ( ) edo eskuinekoa ( ) etiketan aipatzen den funtzioa exekutatzeko.

Egoera-adierazle hauek azal daitezke:




❶ **Estalduraren adierazlea:** Telefonoaren eta sarearen arteko estaldura-maila adierazten du.

Altua Estaldurarik gabe

Estaldurarik gabe dagoela adierazten duen seinalea agertzen denean, ezin da deirik egin, ezta deiak jaso ere.

❷ **Dei-adierazlea:** Dei bat egiten ari dela adierazten du ( ).



❸ **GPRSaren adierazlea:** Zure telefonoa abiadura handiko GPRS sare-konexioa erabiltzen ari dela adierazten du ( G ). GPRS konexioak datuak azkarrago transferitzeko aukera ematen du. Adierazleak ez du esaten dei bat dagoenik; sarean GPRS konexio bidez erregistratuta zaudela bakarrik adierazten du.



❹ **Desplazamendu-adierazlea:** Telefonoa etxeko sarea ez den beste bat erabiltzen ari denean bistaratzen da ( ▲ ). Zure etxeko saretik ateratzen zarenean, telefonoa beste sistema zelular batera desplazatzen da edo beste sare bat bilatzen du.

❺ **Linea aktiboaren adierazlea:** Aktibo dagoen telefono-linea bistaratzen du. Linea aktibatua aldatzeko, ikus 49. or.



❻ **Mezuen adierazlea:** Ahots-mezu ( ) edo testu-mezu ( ) berri bat dagoela adierazten du. Ikurrak dar-dar egiten du mezu-memoria beteta dagoenean.

❼ **Alerta-motaren adierazlea:** Sarrerako deientzat eta mezuentzat hautatutako alerta-mota erakusten du.

| | |
|---|---|
| Txirrina | Keinuka |
| Bibrazioa | Desaktibatuta |
| Bibrazioa eta gero txirrina | |

❽ **Bateriaren mailaren adierazlea:** Bateriaren karga-maila adierazten du. Zenbat eta segmentu gehiago bistaratu, orduan eta karga handiago izango du.

Altua … Baxua

Batería baja ohartarazpena azaltzean eta horri dagokion soinua entzutean, kargatu bateria lehenbailehen.

## *4 noranzkoko nabigazio-tekla erabiltzea*

Erabili lau noranzkoko nabigazio-tekla, menuen sisteman nabigatzeko, funtzioen konfigurazioa aldatzeko eta jolas egiteko.




**Iradokizuna:** Menuetan barrena mugitzeko, normalean gora eta behera noranzkoak erabiliko dituzu. Ezkerreko eta eskuineko noranzkoak konfigurazioak aldatzeko, egutegian nabigatzeko eta testua aldatzeko erabiltzen dira.

## *Menuak erabiltzea*

Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, sakatu Ⓜ menu nagusia bistaratzeko.



**Ezkerreko pantaila-tekla**

Mezuekin lotutako pantailaren ezkerreko funtzioak.

**Pizteko/itzaltzeko/amaitzeko tekla**

Sakatu luze tekla hau telefonoa aktibatzeko eta desaktibatzeko.

Telefonoa piztuta dagoenean, tekla hau sakatzen bada telefono-deia amaitzen da, edo menuen sistematik irteten da.

**Eskuineko pantaila-tekla**

Mezuekin lotutako pantailaren eskuineko funtzioak.

**Menuko tekla**

Sartu menuen sisteman edo ireki azpimenu bat.

**Nabigazio-tekla**

Menuetan eta zerrendatan zehar mugitzeko balio du, baita funtzioen balioak konfiguratzeko ere.

## *Menuko funtzio bat aukeratzea*

Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, hautatu menuaren funtzio bat, honela:

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Configuración** > **Config Inicial** > **Hora y fecha**

Adibide horren arabera, deiak jasotzeko/egiteko egoeran ⓜ sakatu behar da, **Configuración** hautatu, gero **Config Inicial** eta, azkenik, **Hora y fecha** hautatu behar da ordua eta eguna azal daitezen. Erabili tekla mugitzeko, eta eskuineko/ezkerreko pantaila-teklak pantailaren beheko eskuineko eta ezkerreko aldeetan bistaratzen diren funtzioak aukeratzeko.

## *Funtzio bat hautatzea*

Funtzio batzuetan sartzeko, nahitaezkoa da zerrenda bateko elementu bat aukeratzea:

Sakatu ⓜ azpimenua irekitzeko.

Sakatu **ATRÁS** ( ) aurreko pantailara itzultzeko.




Nabarmendutako elementua

Sakatu **VER** ( ) nabarmendutako elementuaren xehetasunak bistaratzeko.

- Sakatu gora edo behera mugitzeko, nabarmendutako elementura iritsi arte.
- Zenbakitutako zerrenda bat bada, idatzi zenbaki bat elementua nabarmentzeko.

- Zerrenda ordena alfabetikoan badago, sakatu tekla bat hainbat alditan, dagokion letraraino joan eta letra horretatik hasten den elementua nabarmentzeko.
- Elementu batek balio posibleen zerrenda bat duenean, sakatu ezkerrera edo eskuinera mugitzeko eta balio bat aukeratzeko.
- Elementu batek hainbat zenbakizko balioren zerrenda badu, sakatu zenbaki-tekla balioa ezartzeko.

## *Testua idaztea*

Funtzio batzuetan informazioa sartu behar da:



Mezu-zentroan testu-mezuak idatzi eta bidal ditzakezu. Kurtsore keinukariak testua non agertuko den adierazten du:




Metodo estandarraren bidez testua sartzean (ikus 33. or.), funtzio-teklak aldatu egiten dira.

## *Testua idazteko metodoa hautatzea*

Testua idazteko metodo ugari daude, izenak, zenbakiak eta testu-mezuak errazago sartzeko. Sakatu > **Método Escrit** testua idazteko edozein pantailatan, testu-modu bat aukeratzeko:

| | |
|---|---|
| **iTAP** | Telefonoak idazten ari zaren hitza aurreratzeko aukera ematen du; ondoren, hitz-zerrenda batetik bat aukeratzen da (ikus 34. or.). |
| **Estándar** | Letraren, zenbakiaren edo ikurraren tekla bat sakatuta karaktere bat idazten du (ikus 33. or.). Hau da testu bat sartzeko metodo estandarra. |
| **Número** | Zenbakiak bakarrik idazten dira. |

***Oharra:*** *Aukeratutako testu-modua aktibo egongo da beste modu bat aukeratuta aldatu arte.*

## *Metodo estandarra erabiltzea*

Hau da telefonoan testua idazteko metodo estandarra.

Sakatu (menu) > **Estándar** testua idazteko pantaila batetik.

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** sakatu zenbaki-tekla bat behin edo hainbat alditan. | 34. orrialdeko taulako letra, zenbaki edo ikurren bat hautatzeko. |
| **2** sakatu zenbaki-tekla bat behin edo hainbat alditan. | gainerako karaktereak idazteko |
| **3** **ENVIAR** ( ) | testua onartzeko eta helbide-pantaila irekitzeko |

### Testua metodo estandarrarekin sartzeko arauak

- Sakatu zenbaki-tekla bat behin eta berriro haren karaktereak aukeratzeko. Ikus 34. orriko taula.
- Sakatu ezkerrera edo eskuinera, kurtsore keinukaria testu-mezuan ezkerrera edo eskuinera mugitzeko.
- Sakatu gorantz edo beherantz, karaktere bat minuskulatik maiuskulara pasatzeko edo alderantziz.
- Telefonoak hainbat hizkuntza onar ditzake. Hizkuntzaren konfigurazioak mezu berria pantailaren ezkerrean edo eskuinean hasten den zehazten du.
- Informazioren bat sartu edo aldatzen baduzu eta aldaketak gorde nahi ez badituzu, sakatu gorde gabe ateratzeko.

## Karaktereen taula

Erabili taula hau metodo estandarrarekin karaktereak sartzeko gida gisa.

zuriunea.

| | |
|---|---|
| 1 .,@ | *espacio.* 1 ? !, @ _ & ~ : ; " <br> - ( ) ' ¿ ¡ % £ $ ¥ ¤ € |
| 2 ABC | a b c 2 ä å á à â ã α β ç |
| 3 DEF | d e f 3 δ ë é è ê ϕ |
| 4 GHI | g h i 4 ï í î γ |
| 5 JKL | j k l 5 λ |
| 6 MNO | m n o 6 ñ ö ø ó ò ô õ ω |
| 7 PQRS | p q r s 7 π ß σ |
| 8 TUV | t u v 8 θ ü ú ù û |
| 9 WXYZ | w x y z 9 ξ ψ |
| 0 + | + - 0 x * / \ [ ] = > < # § |

***Oharra:*** *Baliteke taulan ez bistaratzea zehatz-mehatz telefonoan erabilgarri dituzun karaktere guztiak.*

## *iTAP™ metodo estandarra erabiltzea*

iTAP™ softwareak testu prediktiboa idazteko aukera ematen du, hau da, letra bakoitzeko tekla bakarra sakatuta, hitz bat idazteko aukera ematen du.

Sakatu > **iTAP** testua idazteko pantaila batetik.

## Hitzak idaztea

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** Zenbaki-tekla bat behin. | hitzaren lehen letra idazteko<br>Sakatutako teklari lotutako letrak pantailaren beheko aldean bistaratzen dira. |
| **2** Zenbaki-teklak (bat letra bakoitzeko) | hitzaren gainerako zatia idazteko<br>Letra alternatiboen hitzak eta konbinazioak pantailaren beheko aldean bistaratzen dira. Hitzen aukerak tekla bat sakatzen den bakoitzean eguneratzen dira. |
| **3** ezkerrera edo eskuinera | aukeratu nahi duzun hitza nabarmentzeko<br>hitza kurtsore keinukarian sartzeko |
| **4** **SELEC** ( ) | Hitz bakoitzaren ondoren tarte bat sartzen da automatikoki. |

Adibidez, 'acto' hitza idazteko, sakatu 2 ABC, 7 PQRS, 8 TUV. Pantailan hauxe bistaratuko da:




## iTAP hiztegian ez dauden hitzak idaztea

iTAPek nahi duzun hitza erakusten ez badu:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 ELIMIN ( ) behin edo hainbat alditan | hitzak ezabatzeko, hitzaren hasierarekin bat datorren letren konbinazioa bistaratu arte |
| 2 ezkerrera edo eskuinera | letra edo letren konbinazioa nabarmentzeko |
| 3 SELEC ( ), eta gero sakatu ezkerrera | testuko kurtsorea ezkerrera mugitzeko eta aukeratutako hitzak 'blokeatzeko' |
| 4 Zenbaki-teklak eta | sartu nabarmendutako letrak eta letra-konbinazioak, hitza letreiatzeko |

Zure telefonoak hitz berria memorizatu egiten du, eta metodo hau erabilita testua idazten duzun hurrengo aldian, idatz daitezkeen hitzen artean agertuko da. Hitz ezezagunak gordetzeko memoria betetzen duzunean, telefonoak hitz zaharrenak ezabatuko ditu hitz berriak gehitzen doazen neurrian.

## Puntuazioa

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** 0 + edo 1 .@ | puntuazioa edo beste karaktere batzuk sartzeko (ikus 34. orriko taula) |

## Maiuskulen erabilera

Esaldi bateko lehen hitza maiuskulaz idazten da automatikoki, eta gainerakoak minuskulaz.

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** gora | sartutako karakterearekin hasten diren hitz osoak bistaratzeko |
| **2** behera | lehen letra maiuskulaz jartzeko, karaktere guztiak maiuskulaz edo minuskulaz jartzeko. |

### Zenbakiak sartzea

| Ekintza | Honetarako |
|---|---|
| **4** Sartu lehen digitua eta nabarmendu | iTAP softwarearekin zenbakiak idazteko metodoa aktibatzeko |
| **5** Sakatu zenbaki-teklak. | zenbakiari digituak eransteko |
| **6** Sakatu **SELEC** (⊜) | zenbakia sartzeko |

### Letrak eta hitzak ezabatzeko

Jarri kurtsorea ezabatu nahi duzun testuaren eskuinean eta eman pauso hauek:

| Ekintza | Honetarako |
|---|---|
| Sakatu **ELIMIN** (⊜) | letra bat ezabatzeko |
| Sakatu luze **ELIMIN** (⊜) tekla | mezu osoa ezabatzeko |

## *Telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea*

Telefonoa eskuz blokea dezakezu edo itzaltzean automatikoki blokeatzeko konfigura dezakezu.

Telefonoa blokeatuta egonda ere, deiak edo mezuak jasotzean jo edo bibratu egingo du, baina desblokeatu egin behar da erantzun nahi bada. Blokeatutako telefono bat erabiltzeko, desblokeatze-kodea sartu behar da.

Telefonoa blokeatuta badago ere, larrialdi-deiak egin daitezke. Ikus 51. orrialdea.

## *Telefonoa eskuz blokeatzea*

**Joan funtzio honetara:** Ⓜ > Configuración > Configuración > Bloquear Tfno > Bloqueo Ahora

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 4 **INTROD** (⊜) | desblokeatze-kodearen pantaila irekitzeko |
| 5 teklatuko teklak | 4 digituko desblokeatze-kodea sartzeko |
| 6 **ACEPTR** (⊜) | telefonoa blokeatzeko |

## *Telefonoa desblokeatzea*

**Código Desbloq** mezua bistaratzen denean:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 **INTROD** (⊜) | desblokeatze-kodearen pantaila irekitzeko |
| 2 teklatuko teklak | 4 digituko desblokeatze-kodea sartzeko<br>Fabrikan finkatutako desblokeatze-kodea 1234 da. Behar izanez gero, ikus “Kodea edo pasahitza ahaztu bazaizu” atala 41.orrialdean. |
| 3 **ACEPTR** (⊜) | telefonoa desblokeatzeko |

## *Telefonoaren blokeo automatikoa konfiguratzeko*

Itzaltzean telefonoa blokeatzeko moduan konfigura dezakezu telefonoa:

| | |
|---|---|
| **Joan funtzio honetara:** | > **Configuración** > **Seguridad**<br>> **Bloquear Tfno**<br>> **Bloqueo Autom** > **Activar** |

| **Sakatu** | **Honetarako** |
|---|---|
| **1** **INTROD** ( ) | desblokeatze-kodearen pantaila irekitzeko |
| **2** teklatuko teklak | 4 digituko desblokeatze-kodea sartzeko |
| **3** **ACEPTR** ( ) | telefonoaren blokeo automatikoa konfiguratzeko |

***Oharra:*** *Teklatua automatikoki blokeatzeko,* *ikus 41. or.*

## *Kodea edo pasahitza aldatzea*

Fabrikan aurrez definitutako lau digituko desblokeatze-kodea 1234 da, eta sei digituko segurtasun-kodea 000000. Baliteke zure operadoreak kode horiek aldatzea telefonoa zuri eman aurretik.

Operadoreak kode horiek aldatu ez baditu, zuk aldatzeko aholkatzen dizugu, beste edozeinek zure datuetara sartzeko aukera izan ez dezan edo telefonoaren konfigurazioak aldatzerik izan ez dezan. Desblokeatze-kodeak lau digitukoa izan behar du eta segurtasunekoak seikoa.

Kode edo pasahitz bat aldatzeko:

| | |
|---|---|
| **Joan funtzio honetara:** | > **Configuración** > **Seguridad**<br>> **Contraseñas** |

## *Kodea edo pasahitza ahaztu bazaizu*

Segurtasun-kodea (hasieran 000000), SIMaren PINa, SIMaren PIN2a edo deiak blokeatzeko pasahitza ahaztu badituzu, jarri harremanetan zure operadorearekin.

Desblokeatze-kodea ahaztu bazaizu, saiatu 1234 kodea edo zure telefono-zenbakiaren azken lau digituak idazten. Horrek ere balio ez badu, **Código Desbloq** mezua azaltzean, segitu jarraibide hauei:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 **INTROD** ( ) | desblokeatze-kodearen pantaila irekitzeko |
| 2 | desblokeatze-kodea kentzeko pantailara joateko |
| 3 teklatuko teklak | Segurtasun-kodea sartzeko |
| 4 **ACEPTR** ( ) | Segurtasun-kodea erregistratzeko |

## *Teklatua blokeatzea eta desblokeatzea*

Telefonoaren teklatua blokea dezakezu, teklak konturatu gabe sakatzea eragozteko (adibidez, telefonoa poltsan edo poltsikoan baduzu).

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| * | Teklatua blokeatzeko edo desblokeatzeko |

***Oharra:*** *Sarrerako deiek teklatua desblokeatzen dute.*

Erabiltzen ez denean, teklatua automatikoki blokeatzeko:

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Seguridad** > **Bloqueo Auto** > **Activar**

## *Argazkiak ateratzea eta irudi-mezuak bidaltzea*

Argazkiak egin, ikusi eta Mezularitzako multimedia zerbitzuko (MMS) irudiak dituen mezu gisa bidal ditzakezu.

## *Argazkiak ateratzea*

***Oharra:*** *Bideo-bisorearen irudia eta hartutako irudiak telefonoaren pantailaren eskalara egokituta daude. Irudiak bereizmen hobea izango du ordenagailuan bistaratzen bada.*

**Kameraren giltza**

Ireki kamera eta sakatu irudia ikusteko edo argazkia ateratzeko.



Ireki kameraren lenteak, telefonoaren atzeko aldean, eta fokatu atera nahi duzun objektua edo pertsona:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 (menu) > **Cámara**<br>**edo**<br>kameraren giltza | Kameraren bideo-bisoreko irudia telefonoaren pantailan bistaratzen da. |
| 2 **CAPTURAR** ( ) <br>**edo**<br>kameraren giltza | irudia pantailan geldiarazteko |
| 3 **ALMAC** ( )<br>**edo**<br>**ELIMIN** ( ) | argazkia JPG artxibo gisa telefonoan gordetzeko (ikus 4. urratsa)<br>argazkia ezabatu eta bideo-bisore modura itzultzeko. |

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 4 SELECC ( ) | Argazkia duen MMS irudi-mezu berri bat irekitzeko, joan Bidali MMS, Konfiguratu horrela, Aldatu izena edo Xehetasunak funtzioetara. |
| o | |
| ATRÁS ( ) | bideo-bisorearen modura itzultzeko |

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| Enviar MMS | Argazkia duen MMS irudi-mezu berri bat irekitzen du. |
| Config Como | Argazkia pantailaren hondo gisa edo sarrera-talde baten ikono gisa gordetzen du. |
| Renombrar | Argazkiari izena jartzeko da. |
| Detalles | Argazkiaren izena, argazki-mota, tamaina, eguna eta ordua bistaratzeko da. |

## *Argazkiak ikusteko, bidaltzeko, ezabatzeko eta horien izena aldatzeko*

**Joan funtzio honetara:** > Multimedia > Álbum Fotos > *albuma*

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 | nahi duzun argazkira joateko |
| 2 VER ( ) | argazkira joateko |

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 3 **ENVIAR** ( ) | MMS mezu-irudi berri bat argazkiarekin irekitzeko |
| o | |
| | **Álbum Fotos**-en menua irekitzeko (aukera hauek izango dituzu). |

**Álbum Fotos**-en menuan, beste aukera hauek egon daitezke:

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Config Como** | Argazkia pantailaren hondo gisa edo sarrera-talde baten irudi gisa gordetzeko da. |
| **Eliminar** | Irudia ezabatzen du. |
| **Renombrar** | Irudiaren izena aldatzen du. |
| **Detalles** | Irudiari buruzko informazioa ematen du. |
| **Espacio Libre** | Irudi eta animazioentzat dagoen lekua egiaztatzeko da. |
| **Borrar Todo** | Albumeko irudi guztiak ezabatzen ditu. |
| **Enviar** | Irudia duen testu-mezu bat irekitzeko da (ikus 58. or.). |
| **Trasladar** | Irudia beste leku batera eramaten du. |

# *Telefonoa konfiguratzea*

## *Zure izena eta telefono-zenbakia gordetzea*

SIM txartelean erabiltzaile-izena eta telefono-zenbakia gordetzeko edo aldatzeko:

| | |
|---|---|
| **Joan funtzio honetara:** | ⓜ > **Configuración** > **Estado Tfno** > **Mis Nº Tfno** |

Zure telefono-zenbakia zein den ez badakizu, jo zure operadorearengana.

## *Ordua eta data doitzea*

Egutegia erabiltzeko, ordu eta data zehatzak konfiguratu behar dituzu.

| | |
|---|---|
| **Joan funtzio honetara:** | ⓜ > **Configuración** > **Config Inicial** > **Hora y fecha** |

## *Txirrin-mota konfiguratzea*

Telefonoak jo edo bibratu egiten du, dei bat, mezu bat edo beste edozer duzula adierazteko. Txirrinari eta bibrazioari alerta esaten zaie.

| | |
|---|---|
| **Joan funtzio honetara:** | ⓜ > **Timbre** |

Txirrin-motaren konfigurazioa alda daiteke:

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Volumen** | alerta guztietarako bolumena |

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Timbre Llam** | txirrin edo bibrazio bidezko alerta-motak<br>***Oharra:*** *Pantailaren alerta-adierazleak alerta-mota hori adierazten du (ikus adierazleak 26. orrian).* |
| **Tipo** | **Continuo** edo **Una vez** |
| **Tonos** | deia(k) sartu d(ir)ela jakinarazteko soinua |
| **SMS** | mezua(k) sartu d(ir)ela jakinarazteko soinua |
| **Alarmas** | alarmetarako soinuak |

**Iradokizuna:** Alerta, kolorea eta erantzunaren konfigurazio guztiak batera ezartzeko profila hauta dezakezu. Profil bat aukeratzeko, sakatu ⓜ > **Perfiles**. Ikus 79. orrialdea.

## *Erantzuteko modua konfiguratzea*

Deiak edozein tekla sakatuz erantzun ditzakezu, edo telefonoa programa dezakezu denbora jakin baten ondoren deiei automatikoki erantzuteko. Aukera hauek ezartzeko:

**Joan funtzio honetara:** > **Perfiles**

> *perfil* > **Editar** > **Respuesta**

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Automática** | denbora jakin baten ondoren, automatikoki erantzuten du. |
| **Cualquier Tecla** | tekla bat sakatuz erantzuten du. |
| **Tecla Envío** | sakatuz erantzuten du |

**Iradokizuna:** Alerta, kolorea eta erantzunaren konfigurazio guztiak batera ezartzeko profila hauta dezakezu. Profil bat aukeratzeko, sakatu ⓜ > **Perfiles**. Ikus 79. orrialdea.

## *Pantailaren hondoa konfiguratzea*

Telefonoa deiak jasotzeko/egiteko egoeran dagoenean, irudi edo argazki bat konfigura dezakezu pantailaren hondo gisa erabiltzeko.

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Configuración**
> **Personalizar**
> **Fondo Pantalla**

Aukeratu pantailaren hondoko irudi bat edo sakatu ⓜ eta aukeratu:

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Álbum Fotos** | telefonoan gordetako argazkiak |
| **Imagen** | telefonoan gordetako irudiak |

## *Pantaila-babesa hautatzea*

Pantailaren animazioa edo irudia pantaila babesteko irudi gisa ezar daiteke. Pantaila babesteko irudia azaltzen da, telefonoak aurrez zehaztutako denbora-tartean inaktibo dagoela detektatzen badu.

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Multimedia**
> **Animación** > *la animación*
ⓜ > **Poner de salvapantallas**

Animazioaren irudia pantailara doitzen da, behar izanez gero.

## Pantailaren kolorea konfiguratzea

Adierazleak, nabarmendutako elementuak eta pantaila-teklen etiketak bistaratzeko telefonoak erabili beharreko kolore-jokoa aukera dezakezu:

**Joan funtzio honetara:** > **Perfiles**
> *perfil* > **Editar** > **Color**

***Iradokizuna:*** Alerta, kolorea eta erantzunaren konfigurazio guztiak batera ezartzeko profila hauta dezakezu. Profil bat aukeratzeko, sakatu > **Perfiles**. Ikus 79. orrialdea.

## Argia doitzea

Pantailaren argia piztuta egoteko denbora zehazteko edo bateria ez gastatzeko, desaktibatzeko aukera ematen du.

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración**
> **Config Inicial**
> **Iluminación**

## Bateria aurreztea



Sare eta telefono batzuek bateria aurrezteko aukera ematen dute.

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración**
> **Config Inicial**
> **Ahorro Batería**

# Dei-funtzioak

Deiak nola egin eta jaso jakiteko oinarrizko jarraibideak ikusteko, kontsultatu 24. orrialdea.

## Aktibo dagoen linea aldatzea

Aldatu telefonoan aktibo dagoen linea, deiak beste telefono-zenbakiarekin egiteko eta jasotzeko.

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Estado Tfno** > **Línea Activa**

Aktibo dagoen linearen adierazleak une horretan zein linea dagoen aktibo adierazten du (ikus 27. orria).

## Berriro deitzea

Deiak jasotzeko/egiteko egoeran:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** (deitu tekla) | egindako deien zerrenda ikusteko |
| **2** (nabigazio tekla) | aukeratu nahi duzun sarrerara joateko |
| **3** (deitu tekla) | berriro deitzeko |

## *Dei-identifikazioa erabiltzea*



Deitzen ari den linearen identifikazioak (deiaren ID) sartzen diren deien telefono-zenbakia erakusten du.

**Sartzen diren deietarako:** Deitzen ari den pertsonaren izena aurkibidean gordeta dagoenean, haren izena bistaratzen du, edo, bestela, deitzen ari den pertsonari buruzko informaziorik ez dagoenean, **Llam Entrante** mezua bistaratzen du.

**Egiten diren deietarako:** Beste telefonoetan zure telefono-zenbakia bistara daiteke zuk deitu edo mezua bidaltzen diezunean. Hurrengo deian edo gainerakoetan telefono-zenbakia ezkutatu nahi duzunean:

| | |
|---|---|
| **Joan funtzio honetara:** | M > **Configuración**<br>> **Llam Entrante**<br>> **Identif Llam**<br>> **Sólo Siguiente** edo **Todas Llams** |

## *Sarrerako deia bertan behera uztea*

Telefonoa jotzen edo bibratzen ari denean:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 **IGNOR** ( ) | sarrerako deia bertan behera uzteko |



Telefonoaren eta operadorearekin duzun kontratu-motaren arabera, deia beste zenbaki batera desbidera daiteke edo okupatuta dagoela adierazteko seinalea bidal dakioke deitzen ari den pertsonari.

## *Larrialdi-zenbakia markatzea*

Zure operadoreak larrialdi-telefono bat edo bat baino gehiago aurrez zehatz ditzake (adibidez, 112); horietara edozein egoeratan dei dezakezu, baita telefonoa blokeatuta dagoenean edo SIM txartela sartu ez denean ere.

***Oharra:*** *Larrialdi-zenbakiak aldatu egiten dira herrialde batetik bestera. Baliteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbakiek ez funtzionatzea leku guztietan eta batzuetan larrialdi-deiak egiteko aukerarik ez izatea interferentzia-, inguru- edo sare-arazoengatik.*

| **Sakatu** | **Honetarako** |
|---|---|
| **1** teklatuko teklak | larrialdi-zenbakia markatzeko |
| **2** | larrialdi-zenbakira deitzeko |

## *Nazioarteko zenbakiak markatzea*

Nazioarteko aurrezenbakia markatzeko:

| **Sakatu** | **Honetarako** |
|---|---|
| Sakatu 0 + bi segundoz | deitzen ari zaren herrialdeko aurrezenbakia (+) sartzeko |

## *Jasotako edo egindako dei-zerrendak kontsultatzea*

Telefonoak jasotako eta egindako azken deien zerrenda gordetzen du, baita deiak egitea lortu ez bazen ere. Deiak kronologikoki sailkatuta daude. Zerrendan 10 sarrera daude. Sarrera zaharrenak ezabatu egiten dira berriak sartzen doazen heinean.

***Zuzeneko sarbidea:*** *Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, sakatu ... egindako deien zerrenda bistaratzeko.*

**Joan funtzio honetara:** > **Llamadas**

| Sakatu | Honetarako |
| --- | --- |
| 1 | **Recibidas** edo **Realizadas** aukeretara joateko |
| 2 **SELECC** ( ) | zerrenda aukeratzeko |
| 3 | sarrera batera joateko |
| 4 | aukeratutako zenbakira deitzeko<br><br>***Oharra:*** *Luze sakatu bi segundoz, dei batean zenbaki bat DTMF tonu moduan bidaltzeko* |
| **edo** | teklaren gainean **Ver** bistaratzen da, sarrerako xehetasunak bistaratzeko.<br><br>teklaren gainean **Guardar** bistaratzen bada, telefono-aurkibidean sarrerako xehetasunak jasotzeko. |
| **edo** | ireki **Menú Llamadas**, zerrenda honetako beste aukeretarako |

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Guardar** | Telefono-aurkibidean sarrera bat sortzen du, Nº eremuan aukeratutako zenbakiarekin. (Aukera hau ez da bistaratuko ... teklaren gainean **ALMAC** agertzen bada edo zenbaki hori telefono-aurkibidean gordeta badago). |
| **Eliminar** | Sarrera ezabatzen du. (Aukera hau ez da bistaratuko teklaren gainean **ELIMIN** mezua agertzen bada) |
| **Borrar Todo** | Uneko zerrendako sarrera guztiak ezabatzen ditu. |
| **Añadir Dígitos** | Aukeratutako zenbakiaren amaieran digitu gehiago sartzen ditu. |

## *Erantzun ez den deia itzultzea*

Dei bati erantzuten ez bazaio, pantailan X **Perdidas** azalduko da (X-ek galdutako dei-kopurua adierazten du)

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 **VER** ( ) | galdutako deien zerrenda ikusteko, azken deitik hasita |
| 2 | zerrenda aztertzeko eta itzuli nahi duzun deia aukeratzeko |
| 3 | deia egiteko |

## *Zenbakien blokea erabiltzea*

Teklatuan idatzitako azken digitu-katea gordetzen du memoriaren behin-behineko gunean (Bloc de números izenekoa) Aurretik deitutako telefono-zenbaki bat izan daiteke edo markatu bai baina deitu ez den telefono-zenbaki bat. Zenbakien blokean gordetako zenbaki bat berreskuratzeko:

**Joan funtzio honetara:** > **Llamadas** > **Bloc**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| (tekla) | zenbaki horretara deitzeko |
| **o** | |
| **ALMAC** (tekla) | **Nº**: eremuan idatzitako ohar-blokeko zenbakiarekin telefono-aurkibidean sarrera berri bat sortzeko (ikus 69. orrialdea) |

## *Markaketa bizkorra*

Aurkibideko sarrera bakoitzari markaketa bizkorreko zenbaki bat esleitzen zaio, telefonoaren edo SIM txartelaren memorian gordetzen den kokapena identifikatzen duena. Aurkibideko sarrera bat bizkor markatzeko, deiak jasotzeko/egiteko egoeran:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** teklatuko teklak | deitu nahi duzun telefono-zenbakiari dagokion markaketa bizkorreko zenbakia sartzeko |
| **2** (# tekla) | zenbakia bidaltzeko |
| **3** (tekla) | zenbakia markatzeko |

## Markaketa Turbo Diala

Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, aurkibidean 1etik 9ra zenbakitutako sarreretara deitzeko, segundo batez sakatu markaketa bizkorreko zenbakia.

## Ahots-postontzia erabiltzea



Sareko ahots-postontziaren telefono-zenbakira deituta, zure ahots-mezuak entzun ditzakezu. Ahots-mezuak sarean jasotzen dira, ez telefonoan. Funtzio hori operadorearen araberakoa da.

## Ahots-postontziko zure zenbakia jasotzea

Telefonoan ahots-postontziko zenbakia gordeta, errazago entzungo dituzu ahots-postontziko mezu berriak. Zenbaki hori operadoreak emango dizu.

**Joan funtzio honetara:** (menu) > **Mensajes** > **Configuración** > **Nº Buzón Voz**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** teklatuko teklak | ahots-postontziko telefono-zenbakia idazteko |
| **2** **ACEPTR** (tekla) | zenbakia jasotzeko |

***Oharra:*** *Ezin da etenaldiko karaktererik (**p**), itxaroteko karaktererik (**w**) edo zenbakirik (**n**) gorde zenbaki honetan. Ahots-postontziko zenbaki bat karaktere horiekin gorde nahi baduzu, sortu sarrera bat telefono-aurkibidean helburu horrekin. Horrela, sarrera hori erabil dezakezu ahots-postontzira deitzeko. Ikus 70. orrialdea.*

## Ahots-mezu berriak jasotzea

Ahots-postontziaren mezu bat jasotzean, (ikonoa) (ahots-mezua zain) eta **Nuevo Msj Voz** azalduko dira pantailan. Sare batzuek mezua bidali dela jakinarazten dute bakarrik, ez dute zehazten berria den ala ez.

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 **LLAMAR** ( ) | jasotako ahots-postontziko zenbakira deitzeko eta mezua entzuteko |

## *Ahots-mezu bat entzutea*

**Joan funtzio honetara:** > **Mensajes** > **Buzón Voz**

Telefonoak ahots-postontziko zenbakia markatuko du. Ahots-postontziko zenbakirik gordeta ez baduzu, telefonoak bat gordetzeko eskatuko du.

## *Deia zain*



Hitz egiten ari zarenean, alerta-tonu batek jotzen du beste dei bat duzula ohartarazteko.

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 | deiari erantzuteko |
| 2 **CAMBIO** ( ) | lehen deira itzultzeko |
| **edo** | ***Oharra:*** *Edozein unetan,* **CAMBIO** *( ) saka daiteke dei batetik bestera aldatzeko.* |
| **ENLACE** ( ) | bi deiak lotzeko |

Funtzio hau erabiltzeko, Llamada en espera aukera aktibatu behar duzu. Deia zain uzteko aukera aktibatzeko edo desaktibatzeko:

| | |
|---|---|
| **Joan funtzio honetara** | > **Configuración** > **Llam Entrante** > **En Espera** |

## *Deia zain uztea*

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **RETEN** ( ) (erabil badaiteke)<br><br>**edo**<br><br>> **En Espera** | dei bat zain uzteko |

## *Deien transferentzia*

Dei batean, dei hori beste telefono batera transferi daiteke.

| | |
|---|---|
| **Joan funtzio honetara:** | > **En Espera** |

| | Sakatu | Honetarako |
|---|---|---|
| **1** | teklatuko teklak | transferitutako deia jasoko duen pertsonaren telefono-zenbakia sartzeko |
| **2** | | telefono-zenbakia markatzeko<br><br>telefonoa hartu dizun solaskidearekin hitz egiteko. |
| **3** | | menua irekitzeko |
| **4** | | **Transferir** aukerara joateko |
| **5** | **SELEC** ( ) | transferentzia berresteko |

# Mezuak

Testu-mezuak bidali eta jaso daitezkeen mezu laburrak dira.



Oharrak aurrez idatzitako testu-mezuak dira, eta mezu batean sartu eta berehala bidal daitezke.

## Mezuen sarrerako ontzia konfiguratzea

Mezuak bidali eta jaso ahal izateko, lehenik testu-mezuen sarrerako ontzia konfiguratu behar da.

***Oharra:*** *Baliteke zure operadoreak mezuen sarrerako ontzia konfiguratua izatea.*

**Joan funtzio honetara:** > **Mensajes** > **Configuración** > **Entrada**

| Aukera | Deskribapena |
| --- | --- |
| **Config SMS** | Zerbitzu-zentroaren zenbakia, iraunaldia eta SMS mezuentzako erantzun-mota sartzeko da. |
| **Config MMS** | Sare-konfigurazioak, iragazkiak eta MMS mezuentzako mugak sartzeko da. |

## Mezuak, irudiak eta soinuak bidaltzea

***Oharra:*** *Mezuak bidali eta jaso ahal izateko, lehenik testu-mezuen sarrerako ontzia konfiguratu behar da (ikus 58. or.).*

Bi testu-mezu mota bidal ditzakezu:

**Joan funtzio honetara:** ⊜ > **Mensajes** > **Crear** > mezu-mota

| | |
|---|---|
| **SMS/EMS** | Testua, ikono sinpleak eta txirrinak ditu. |
| **Multimedia** | Testua, argazkiak eta soinu konplexuak ditu. |
| **Plantillas** | Aurrez aukeratutako testua, argazkiak eta soinu konplexuak ditu. |

| **Sakatu** | | **Honetarako** |
|---|---|---|
| **1** | teklatuko teklak | testu-mezua sartzeko (ikus 31. or.).<br>Mezuan irudi bat, animazio bat edo soinu-fitxategi bat sartzeko, sakatu:<br>⊜ > **Insertar Archivo** > objektu-mota > objektua<br>***Oharra:*** *Fitxategi batzuk ez dira bateragarri hainbat telefono-markarekin.* |
| **2** | **ENVIAR** ( ▭ ) | mezuaren edukia gorde eta helbideen editorea irekitzeko. |
| **3** | **SELEC** ( ▭ ) | [**Nueva**] aukeratzeko |
| **4** | teklatuko teklak | mezua zein telefono-zenbakitara bidali nahi duzun sartzeko |

**Edo**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| (menu) > Agenda | aurkibideko telefono-zenbaki bat edo hainbat aukeratzeko. |
| 5 ENVIAR ( ) | mezua bidaltzeko |
| edo | |
| (menu) > Guardar Msj | mezua zirriborro gisa gordetzeko |
| 6 SELEC ( ) | bidalketa berresteko |

## *Testu-mezuak ohar gisa bidaltzea*

Oharrak aurrez idatzitako testu-mezuak dira, eta mezu batean sartu eta berehala bidal daitezke (adibidez, **Nos vemos a las ...**). Gainera, ohar berriak sor daitezke.

| | |
|---|---|
| Joan funtzio honetara: | (menu) > **Mensajes** > **Plantillas** > **Notas** |

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 (nabigazio-tekla) | oharrera joateko |
| 2 ENVIAR ( ) | oharra bidaltzeko |
| edo | |
| (menu) | oharraren testua ikusteko edo ohar berri bat sortzeko |

## *Bidalitako testu-mezuen egoera bistaratzea*

Bidalitako testu-mezuak irteerako ontzian gordetzen dira.

**Joan funtzio honetara** ⊜ > **Mensajes** > **Band Salida**

Mezuak jaso diren egunaren arabera sailkatuta daude.

## *Testu-mezuak jasotzea*

***Oharra:*** *Mezuen sarrera-ontziak konfiguratuta egon behar du mezuak bidali eta jaso aurretik. Ikus 58. orrialdea.*

Mezu berri bat jasotzean, telefonoan ✉ (mezua zain dagoela adierazten du) eta **Nuevo Mensaje** azaltzen dira eta alerta-soinua egiten du.

| **Sakatu** | | **Honetarako** |
|---|---|---|
| 1 | **VER** ( ⊜ ) | mezua (edo testu-mezuen sarrera-ontzia, hainbat mezu badaude) irekitzeko |

Oharrak aktibatuta badaude, telefonoak ohar bat bidaliko du denbora-tarte erregularretan mezu berriaren jakinarazpena itxi edo mezua irakurri arte edo telefonoa itzali arte.

Telefonoan **Mem SMS llena** ikusten baduzu, sarrera-ontziko, irteera-ontziko edo zirriborro-karpetako mezu zaharretako bat ezabatu behar duzu, mezu berriak jasotzeko.

## *Testu-mezuak irakurtzea edo ezabatzea*

Sarrerako ontziko testu-mezuak hartutako egunaren arabera daude sailkatuta, berrienetatik zaharrenetara.

Joan funtzio honetara: (menu) > **Mensajes** > **Entrada**

| Sakatu | | Honetarako |
|---|---|---|
| **1** | (nabigazio-tekla) | mezura joateko |
| **2** | **LEER** (tekla) | mezua irekitzeko |
| **3** | **ATRÁS** (tekla) | mezua ixteko |
| | **edo** | |
| | **RESPON** | erantzun bat idatzi eta bidaltzeko |
| | **edo** | |
| | (menu) | ireki **Menú Msjs** aukera hauek bistaratzeko |

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Responder** | Testu-mezu berri bat irekitzeko da, **En**: eremuan **Responder En**: igorlearen zenbakia edo helbide elektronikoa azaltzen den lekuan. |
| **Eliminar** | Mezua ezabatzen du. |
| **Responder** | Mezuaren goiburukoan edo mezuan bertan dagoen zenbakira deitzeko da. |
| **Chat** | Mezuaren igorlearekin txat-saio bat hasteko da. |
| **Reenviar** | Testu-mezuaren kopia bat irekitzen du, **En**: eremua hutsik duela. |

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Borrar Msj** | **Entradan** iraungitze-data pasatu duten mezuak ezabatzen ditu(ikus 58. or.) |
| **Dirección** | Sarrera bat sortzen du telefono-aurkibidean **Responder En**:. zenbakiarentzat. |

## *Informazio-zerbitzuen mezuak irakurtzea*



Informazio-zerbitzuen mezuak hedapen-mezuak dira, adibidez, burtsaren eguneratzea edo berriak.

Informazio-zerbitzuen mezuen sarrera-ontzia konfiguratu egin behar da, mezu-mota hau jaso ahal izateko. Sarrerako ontzian jaso dezakezun mezu-kopuruaren guztizkoa mezuen tamainaren eta telefonoan jasotako mezu--kopuruaren eta zirriborroen tamainaren araberakoa da.

***Oharra:*** *Baliteke zure operadoreak mezuen sarrerako ontzia konfiguratua izatea.*

**Joan funtzio honetara:** > **Mensajes** > **Configuración** > **Servicio Inform**

Sarrera-ontziko informazio-zerbitzuak konfiguratzeko, doikuntza hauek konfiguratu behar dira. Sarrera konfiguratzeko, jarri harremanetan zure operadorearekin sarbidea konfiguratzeko. Eremuen izenak eta balioak aldatu egin daitezke operadoreak erabiltzen duen teknologiaren arabera.

Konfigurazio batzuek ez dute balio telefono-modelo guztietarako.

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Servicio** | **Sí** edo **No** aukeratu behar da igorleak aktibatzeko edo desaktibatzeko. |
| **Canales** | harpidetza-kanalak konfiguratzeko da |
| **Idioma** | Igorlearen mezuak zein hizkuntzatan jaso nahi dituzun aukera dezakezu |

## *Txata erabiltzea*



Beste telefono mugikor bateko erabiltzailearekin testu-mezuak truka ditzakezu denbora errealean, hau da, txat-saio bat egin dezakezu. Bidalitako mezuak txatean parte hartzen ari den beste pertsonaren telefono-pantailan bistaratuko dira berehala.

## *Txat-saio bat abiaraztea*

**Joan funtzio honetara:** (menu) > **Chat** > **Empezar Chat**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** teklatuko teklak | erabiliko duzun izena (**Nombre**:) |
| **2** **ACEPTR** ( ) | idazteko erabiliko duzun izena (**Nombre:**) gordetzeko |
| **3** teklatuko teklak | txateko lehen mezua idazteko |
| **edo** | |
| (menu) > **NOTAS** | ohar bat aukeratzeko |
| **4** **ACEPTR** ( ) | txat-mezua gordetzeko |

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 5 **SELEC** ( ) | txateko solaskidearen telefono-zenbakia sartzeko |
| edo | |
| > **Búsqueda PB** | telefono-aurkibideko edo azken deien zerrendako zenbaki bat aukeratzeko |
| 6 **ACEPTR** ( ) | mezua bidaltzeko<br>Telefonoak txat-erregistroa erakusten du. Solaskideak erantzuten duenean, erantzuna zure testuaren azpian bistaratuko da. |
| 7 **CHAT** ( ) | solaskideari bidali beharreko erantzuna idazteko |
| 8 **ACEPTR** ( ) | erantzuna bidaltzeko |

***Oharrak:***

- *Testu-mezua baino ez duen telefono batera txat-mezu bat bidaltzen baduzu, txat-testua testu-mezu gisa azalduko da beste telefonoan. Erantzuna txat-testu gisa azalduko da zure telefonoan.*
- *Txat-saioa testu-mezu batetik abiatuta has dezakezu. Sakatu eta aukeratu* **Chat,** *beste pertsonaren* **En***: eremuko* **Responder En***: aukerako zenbakiarekin saio berria abiarazteko.*
- *Telefonoan* **Mem SMS llena** *mezua bistaratzen bada, sarrerako ontziko, irteerako ontziko edo zirriborroen karpetako mezuak ezabatu behar dituzu txateko mezu berriak jasotzeko.*

## *Txataren erregistroa erabiltzea*

Txataren erregistroak txat-saio batean trukatutako mezuak bistaratzen ditu.




## *Txatari erantzutea*

Txat-mezu bat jasotzen duzunean, telefonoak **Chat Desde**: txataren izena mezua bistaratzen du eta alerta bat emititzen du.

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **ACEPTR** ( ) | Txat-saioa onartzeko |
| **edo** | |
| **RECHAZ** ( ) | Txat-saioa ez onartzeko |

Oharrak aktibatuta badaude, telefonoak ohar bat bidaltzen du denbora-tarte erregularretan, txataren jakinarazpenari erantzuten zaion arte edo telefonoa itzali arte.

Txat-saio batean beste txat baterako eskaera iristen bazaizu, mezu berria sarrerako testu-mezu gisa bistaratuko da, mezuaren hasieran eskatzailearen txataren izena duela.

## *Txat-saio bat amaitzea*

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 **PAUSA** ( ) | saioa bertan behera uzteko |
| 2 | **Menú Chat** irekitzeko |
| 3 | **Finalizar Chat** aukeratzeko |
| 4 **SELEC** ( ) | **Finalizar Chat** aukerara joateko |

Telefonoa itzaltzen denean, sarrerako dei bati erantzuten zaionean edo txat-saio berri bati ekiten zaionean ere amaitzen da txat-saioa.

Txateko solaskideak ez du ohartarazpenik jasotzen txat-saioaren amaieran. Solaskideak txat-testu gehiago bidaltzen baditu, telefonoak sarrerako testu-mezu gisa hartzen ditu, mezuaren hasieran solaskidearen txataren izena dutela.

Txataren erregistrotik **Finalizar Chat** aukeratu gabe ateratzen bazara eta zure solaskideak beste mezu bat bidaltzen badizu, telefonoak jakinarazi egingo dizu eta txataren erregistroan sartuko du mezua. Txataren erregistrora itzulita sar zaitezke berriro saioan.

# Telefono-aurkibidea konfiguratzea

Izen eta telefono-zenbakien edo helbide elektronikoen zerrenda bat gorde dezakezu telefonoaren aurkibide elektronikoan. Izenak aurkibidean ezartzeko:

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Agenda**

Ondorengo irudian ikusten den bezala, sarrera baten xehetasunak ikusteko, aukeratu izena eta sakatu **VER** ( ).

## *Sarrerako xehetasunak bistaratzea*

Sakatu elementuetara joateko.

Joan sarreraren **kokapen-** zenbakira (Turbodial)

Zerrendara itzultzeko




**Sarreraren** izena

**Sarreraren** telefono-zenbakia

**SIM** edo **Teléfono** sarreraren kokapena

**Sarreraren** helbide elektronikoa

Aldatu sarrera

Sakatu ⓜ **Menú Agenda** irekitzeko

## Telefono-aurkibideko sarrerak sortzea

Telefonoan edo SIM txartelean gorde ditzakezu sarrerak.

## Datuak sartzea

Telefono-aurkibideko sarrera bat sortzeko edo aldatzeko:

**Joan funtzio honetara:** ⊜ > **Agenda**
⊜ > **Nuevo**
> **Nº Tfno**

**Zuzeneko sarbidea:** Sartu telefono-zenbaki bat deiak jasotzeko/egiteko egoeran eta sakatu **ALMAC** ( ⊜ ) telefono--aurkibidean sarrera berri bat sortzeko, zenbakia **Nº**: eremuan sartuta.

Telefono-aurkibideko sarreretan, telefono-zenbakia adierazi behar da. Gainerako datuak aukerakoak dira. Datu hauek zehatz daitezke telefono-aurkibidean sarrera bat sartzeko.

| Telefono-aurkibideko elementua | Deskribapena |
|---|---|
| **Nombre** | sarreraren izena |
| **Nº** | telefono-zenbakia |
| **Memoria** | sarrera gordetzeko, **Teléfono** edo **SIM** aukeratu behar duzu |
| **Nombre Voz** | izen bat grabatzeko da, sarrera ahoz markatzeko |
| **E-mail** | helbide elektronikoa |
| **Grupo:** | sarrera sailkatzen duen taldea (ikus 74. or.) |
| **Foto:** | sarrera baten deiak jasotzean haren argazkia ateratzea nahi izanez gero, Foto: aukeratu behar da. |

| Telefono-aurkibideko elementua | Deskribapena |
|---|---|
| **En:** | sarrera Turbodial ukitu bakar batekin markatzeko erabiltzen duen zenbakia (1-9 bitarteko sarreretarako). Turbodialarekin sarrera bat markatzeko, luze sakatu Turbodial zenbakia deiak jasotzeko/egiteko pantailan. |

## *Telefono-aurkibideko sarrerak osatzea*

Aurkibideko sarrera bati sartu beharreko datu guztiak sartu ondoren:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **TERMIN** ( ) | sarrera gordetzeko eta aurkibidera itzultzeko |

## *PIN kode bat telefono-zenbaki batekin gordetzea*

Zenbaki gehiago behar dituzten deientzat, PIN kode bat gorde dezakezu telefono-zenbaki batekin(adibidez, txartel bidez deitzeko edo ahots-postontziko edo erantzungailu automatikoko mezuak berreskuratzeko).

Sartu karaktere hauetako bat edo batzuk markaketa-segidan, zenbakia ongi markatzen eta konektatzen dela egiaztatzeko.

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| ⓜ > **Insertar Pausa** | **p** karaktere bat (etenaldia) sartzeko<br>Telefonoak aurreko zenbakiak markatzen ditu, deia konektatzeko itxaroten du eta, gero, gainerako zenbakiak bidaltzen ditu.<br>***Oharra:*** *Sareak lehenengo karakterea onartzen ez badu, saiatu birekin* (**pp**). |
| ⓜ > **Insertar Espere...** | **w** karaktere bat (itxarotekoa) sartzeko<br>Telefonoak aurreko zenbakiak markatzen ditu, deia konektatu arte itxaroten du eta berresteko eskatzen du, gainerako zenbakiak bidali baino lehen. |
| ⓜ > **Insertar 'n'** | **n** karaktere bat (zenbakia) sartzeko<br>Telefonoak zenbaki bat eskatzen du markatu aurretik. Idatzitako zenbakia markaketaren sekuentzian sartzen da **n** karakterearen ordez. |

***Oharrak:***

- *Zenbaki bakoitzeko, gehienez 40 digitu gorde daitezke telefono-aurkibideko sarrera bakoitzean. Gehienezko kopurua desberdina izan daiteke SIM txartelean gordetako sarreretarako. Karaktere bakoitza digitu bat da.*
- **w** *edo* **n** *karaktereak dituzten zenbakiak ezin dira gorde SIM txartelean.*

## *Ahots-etiketa bat telefono-aurkibideko sarrera batean grabatzea*

Ahots-etiketa batekin sarreraren zenbakia marka daiteke, ahots bidezko markaketa erabiliz. Telefono-aurkibideko sarreretarako edo sarrera berrietarako, ahots-etiketa bat graba dezakezu.

***Oharra:*** *Ezin da ahots-etiketarik grabatu SIM txartelean gordetako sarreretan.*

Egin ahots-grabaketa zaratarik gabeko leku batean. Jarri telefonoa ahotik hamar zentimetrora eta hitz egin beti bezala, zuzenean telefonoaren mikrofonora.

**Joan funtzio honetara:** (menu) > **Agenda**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 (nabigazio-tekla) | sarrerara joateko |
| 2 **VER** ( ) | sarreraren xehetasunak ikusteko |
| 3 **EDITAR** ( ) | sarrera aldatzeko |
| 4 (nabigazio-tekla) | **Nombre Vozera** joateko |
| 5 **GRABAR** ( ) | grabatzen hasteko |
| 6 **GRABAR** ( ) eta askatu, eta esan sarreraren izena (2 segundoan) | ahots-etiketa grabatzeko |
| 7 **GRABAR** ( ) eta askatu; gero, esan izena berriz | ahots-etiketa berresteko |
| 8 **TERMIN** ( ) | ahots-etiketa gordetzeko |

## Telefono-aurkibideko sarrerak markatzea

Erabili prozedura hauetakoren bat telefono-aurkibideko zenbaki batera deitzeko (edo helbide elektroniko batera testu-mezu bat bidaltzeko).

***Oharra:*** *Turbodiala ere erabil dezakezu (ikus 55. or.).*

## Telefono-aurkibidea erabiltzea

**Joan funtzio honetara:** Ⓜ > Agenda

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** teklatuko teklen letrak | letra horrekin hasten diren sarreretara salto egiteko (hautazkoa) |
| **2** nabigazio-tekla | aukeratu nahi duzun sarrerara joateko |
| **3** bidali-tekla | zenbakia markatzeko |

## Ahots bidezko markaketa erabiltzea

Ahots-etiketa batez gordetako sarrera batera deitzeko, luze sakatu ezkerreko funtzio-tekla telefonoak **Diga nom ahora** esan arte. Esan sarreraren izena (bi segundotan). Ezkerreko funtzio-tekla




Sarrera baterako ahots-etiketa bat gordetzeko, ikus 72. or.

## Telefono-aurkibideko sarrera bat aldatzea

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Agenda**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 ◎ | letra horrekin hasten diren sarreretara salto egiteko (hautazkoa) |
| 2 **VER** ( ▭ ) | aukeratu nahi duzun sarrerara joateko |
| 3 **EDITAR** ( ▭ ) | zenbakia markatzeko |

Aldatu sarrera 69. orrian azaltzen den bezala.

**Iradokizuna:** Sakatu ⓜ telefono-aurkibidearen menua irekitzeko eta aukeratutako sarreran egin nahi dituzun aldaketak egiteko.

## Telefono-aurkibideko sarrerak ezabatzea

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Agenda**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 ◎ | sarrerara joateko |
| 2 ⓜ | **Menú Agenda** irekitzeko |
| 3 ◎ | **Eliminarera** joateko |
| 4 **EDITAR** ( ▭ ) | sarrera ezabatzeko |

## Dei-taldeak erabiltzea



Telefono-aurkibideko sarrerak taldeka sailka daitezke. Talde bateko norbaiten dei edo mezuren bat jasotzen baduzu, telefonoak txirrin berezi bat erabiltzen du talde horretarako.

## *Talde baten konfigurazioa*

**Joan funtzio honetara**: ⊡ > **Configuración**
> **Personalizar**
> **Grupos Llamadas** > taldearen izena

Konfigurazio hauek edita daitezke:

| **Aukera** | **Deskribapena** |
|---|---|
| **Nombre** | taldearen izena |
| **Timbre** | telefonoak talde bateko kideen deietarako erabiltzen duen txirrina |
| **Icono: [grupo]** | telefonoak talde bateko kideen deietarako erabiltzen duen ikonoa |
| **Predeterminado** | hasierako balio guztiak berriro ezartzeko da |

## *Telefono-aurkibideko talde bat soilik ikustea*

Telefono-aurkibideak talde bakar bateko sarrerak soilik bistaratzeko:

**Joan funtzio honetara:** ⊡ > **Agenda**
⊡ > **Grupos Llamadas**
> *bistaratzea nahi duzun taldea*

Telefonoak telefono-aurkibideko sarrera guztiak ezkutatzen ditu, aukeratutako taldeko kideenak izan ezik.

## *Telefono-aurkibideko sarrerak sailkatzea*

Telefono-aurkibideko zerrendako zenbakiak markaketa bizkorreko ordenan ordena ditzakezu: Alpha ordena, Bopomofo ordena, Pinyin ordena eta Stroke ordena.

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Agenda**
ⓜ > **Clasificación PB**
> sailkapen-ordena

## *Telefono-aurkibideko sarrerak kopiatzea*

***Oharra:*** *Prozedura hauek ez dituzte jatorrizko sarrerak ezabatzen.*

### *Sarrera bakarra kopiatzea*

**Joan funtzio honetara** ⓜ > **Agenda**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 (nabigazio-tekla) | sarrerara joateko |
| 2 ⓜ | **Menú Agenda** irekitzeko |
| 3 (nabigazio-tekla) | **Copiar Entrada** aukerara joateko |
| 4 **SELEC** ( ) | **Copiar Entrada** aukeratzeko<br>Telefonoak berresteko eskatuko dizu. |
| 5 **SÍ** ( ) | sarrera posizio berrian kopiatzeko |

**Iradokizuna:** SIM txartelak ezin ditu sarreren **Tipo** eta **Nombre Voz** datuak gorde. Mota edo ahots-etiketa eremuetan datuak dituen sarrera SIM txartelean kopiatzen saiatzen bazara, telefonoak datu horiek ezabatzeko eta sarrera kopiatzeko aukera berresteko eskatuko du.

telefonoak datu horiek ezabatzeko eta sarrera kopiatzeko aukera berresteko eskatuko du.

## *Sarrera guztiak kopiatzea*

**Joan funtzio honetara:** Ⓜ > **Agenda**
Ⓜ > **Copiar Entradas**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 Ⓜ | **Menú Agenda** irekitzeko |
| 2 nabigazio-tekla | **SIM a Tfno**, **Teléfono a SIM**, **SIM a Grupo** edo **Grupo a SIM** aukeretara joateko |
| 3 **SELEC** (tekla) | kopiaren aukera hautatzeko |
| 4 **SÍ** (tekla) | kopia berresteko |

## *Telefono-aurkibidearen edukiera egiaztatzea*

Telefono-aurkibidean eta egutegian sarrerak gordetzeko dagoen lekua ikus dezakezu memorian, baita SIM txartelean telefono-aurkibideko zenbat sarrera gorde dezakezun ere.

**Joan funtzio honetara:** Ⓜ > **Agenda**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 Ⓜ | **Menú Agenda** irekitzeko |
| 2 nabigazio-tekla | **Capacidad Tfno** edo **Capacidad SIM** aukeretara joateko |

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 3 **SELEC** ( ) | **Capacidad Tfno** edo **Capacidad SIM** aukeratzeko<br>Telefonoak telefono-memoriaren adierazlea edo SIM txartelean gorde daitekeen telefono-aurkibideko sarrera-kopurua bistaratzen du. |

# Telefonoa pertsonalizatzea

## Profil bat hautatzea edo aldatzea

*Profil* batek alerten, kolore-estiloaren eta erantzun-motaren konfigurazioak gordetzen ditu. Profil bat hautatzeko:

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Perfiles** > profila > **Activar**

***Oharra:*** *profilak zuk nahi duzun profila adierazten du.*

Edozein profil pertsonaliza dezakezu

**Joan funtzio honetara**: ⓜ > **Perfiles** > profila > **Editar**

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Color** | pantaila-adierazleetarako, nabarmendutako elementuetarako eta funtzio-teklen etiketetarako kolore-sorta |
| **Timbre** | txirrinen edo dardaren, mezuen eta alarmen konfigurazioak<br>***Oharra:*** *Konfigurazio horiek honela ere alda daitezke:* ⓜ > **Timbre** (ikus 45. or.). |
| **Tono Teclas** | teklak sakatzean egiten duten soinua |
| **Tono Aviso** | ohar-tonuak aktibatzeko **Activar** edo **Desactivar** sakatu behar da |
| **Temporizador** | deitzeko orduaren gogorarazle **Sencillo** edo **Múltiple** aukeratzeko da |

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Alerta** | ezarritako deietarako alerta aukeratzeko da |
| **Respuesta** | sartzen diren deiei erantzuteko metodo bat aukeratzea |

## *Alerta-tonuak sortzea eta aldatzea*

Alerta-tonu pertsonalizatuak sortu eta gorde ditzakezu telefonoan. Tonuak erabil daitezkeen alerten zerrendan azaltzen dira.

### *Tonuak sortzea*

**Joan funtzio honetara:** (menu) > **Multimedia**
> **Melodía**
(menu) > **Nuevo**

| Sakatu | | Honetarako |
|---|---|---|
| 1 | **CAMBIO** ( ) | |
| 2 | (nabigazio-tekla) **edo** teklatuko teklak | **Notas:** aukeratzeko tonuaren notak sartzeko (ikus hurrengo atala) |
| 3 | **ACEPTR** ( ) | notak gordetzeko |
| 4 | **CAMBIO** ( ) | **Nombre** aukeratzeko |
| 5 | teklatuko teklak | tonuaren izena sartzeko |
| 6 | **ACEPTR** ( ) | izena gordetzeko |
| 7 | **TERMIN** ( ) | tonua gordetzeko |

## Notak sartzea

Sakatu  gorantz edo beherantz nota baten edozein zortzidun (0-8) aukeratzeko. **Oinarrizko notak:** c (do) d (re) e (mi) f (fa) g (sol) a (la) b (si) **Goiko notak:** #c #d #f #g #a

Noten eta etenaldien ezaugarriak ere sar ditzake. Adibidez, ***2#g0r** ipinita, G sostenituaren bigarren zortziduna eta etenaldia erreproduzitzen du. Sakatu behin eta berriro zenbaki-teklak, taula honetako aukerak ikusteko:

### Noten taula

| Tekla | Bistaratzeko modua | Deskribapena |
|---|---|---|
|  | **1** | Lehen zortziduna, **1Gn** bezala |
| | **2** | Bigarren zortziduna, **2Gn** bezala |
| | **3** | Hirugarren zortziduna, **3Gn** bezala |
|  | **A** | A nota |
| | **B** | B nota |
| | **C** | C nota |
| | **2** | Bigarren zortziduna, **2Gn** bezala |
|  | **D** | D nota |
| | **E** | E nota |
| | **F** | F nota |
| | **3** | Hirugarren zortziduna, **3Gn** bezala |
|  | **G** | G nota |
| | **R** | isilunea sartzen du (iraupena aldatzekoak ere gehi ditzake, **Rh** adibidez) |

| Tekla | Bistaratzeko modua | Deskribapena |
|---|---|---|
| 7 PQRS | # | goiko nota, F#n bezala |
| | b | beheko nota, Gbn bezala |
| 0 + | q | beltz bat, Gqn bezala |
| | h | zuri bat, Ghn bezala |
| | w | biribil bat, Gwn bezala |

## Adibidea

Tonu sinple bat sortzeko, gorantz edo beherantz sakatuz sar ditzakezu notak eta 4 GHI sakatuz isiluneak. Esate baterako:

| Sakatu | Honetarako | Bistaratzeko modua |
|---|---|---|
| 1 | Cra joan eta irtengunea desagertu arte itxaroteko | C |
| 2 | Era joateko | CE |
| 3 | 1A arte jaisteko | CE1A |
| 4 | C arte jaisteko | CE1AC |
| 5 4 GHI | R aukeratu eta isilune bat egiteko | CE1ACR |
| 6 ACEPTAR () | tonua gordetzeko | |

## *Tonuak erreproduzitzea*

**Joan funtzio honetara:** Ⓜ > **Multimedia** > **Melodía** > *tonuaren izena*

## *Tonuak aldatzea*

Ezin dira editatu telefonoko alerta-tonu estandarrak. Zuk sortutako tonu pertsonalizatuak aldatzeko:

**Joan funtzio honetara:** Ⓜ > **Multimedia** > **Melodía**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** nabigazio-tekla | tonura joateko |
| **2** Ⓜ > **Editar** | tonuaren xehetasunak irekitzeko |
| **3** nabigazio-tekla | **Nombre** edo **Notas**: aukeretara joateko |
| **4** **CAMBIO** (tekla) | aldatu nahi dituzun xehetasunak aukeratzeko |
| **5** nabigazio-tekla **edo** teklatuko teklak | testu edo nota berriak sartzeko |
| **6** **ACEPTAR** (tekla) | xehetasunak gordetzeko |
| **7** **TERMIN** (tekla) | tonua gordetzeko |

### *Tonuak ezabatzea*

Ezin dira ezabatu telefonoko alerta-tonu estandarrak. Zuk sortutako tonu pertsonalizatuak ezabatzeko:

**Joan funtzio honetara:** Ⓜ > **Multimedia** > **Melodía**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 (nabigazio-tekla) | tonura joateko |
| 2 Ⓜ > **Eliminar** | **Eliminar** aukeratzeko |
| 3 **SÍ** ( ) | ezabaketa berresteko |

### *Tonuak deskargatzea*

Txirrin-tonu pertsonalizatuak deskarga ditzakezu nabigatzailearen aplikaziotik edo testu-mezu batetik. Tonuak nabigatzailetik deskargatzeko, ikus 108. or. Tonuak testu-mezu batetik deskargatzeko, ikus 61. or.

### *Tonuak bidaltzea*

Txirrin-tonuak bidal diezazkiekezu beste telefono mugikorren erabiltzaileei. Tonu bat testu-mezu batean sartzeko, ikus 58. or.

### *Menuko hizkuntza aukeratzea*

Funtzioen eta menuen aukeren hizkuntza aukera dezakezu.

**Joan funtzio honetara:** Ⓜ > **Configuración** > **Config Inicial** > **Idioma**

## Aukera guztiak berrabiaraztea

Aukera guztiak fabrikako jatorrizko balioetan berriro jar ditzakezu, desblokeatze-kodea, segurtasun-kodea eta telefonoan metatutako deien kontagailua izan ezik:

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Configuración** > **Config Inicial** > **Reinicio**

## Datu guztiak ezabatzea

Aukera guztiak fabrikan doitu bezala berriz jartzeko (desblokeatze-kodea, segurtasun-kodea eta telefonoan metatutako deien kontagailua izan ezik) eta erabiltzailearen sarrera guztiak ezabatzeko (adibidez, telefono-aurkibideko sarrerak, pantaila-hondoak, pantaila-babesleak eta deskargatutako soinuak):

**Kontuz:** Ezabatze orokorraren aukerarekin, *erabiltzaileak deskargatutako gauza guztiak ezabatzen dira, baita sartutako informazio guztia ere* –telefono-memorian gordeta dagoena–, egutegiko eta telefono-aurkibideko sarrerak barne. Ezabatutako datuak ezin dira berreskuratu. Ezabatze orokorrak *ez* du SIM txarteleko informazioa ezabatzen.

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Configuración** > **Config Inicial** > **Borrado**

## Bizkor sartzeko menua erabiltzea

Telefonoak hainbat zuzeneko sarbide estandar ditu. Zuzeneko sarbide pertsonalizatuak sor daitezke, maiz erabiltzen diren menu-elementuetarako.

## Zuzeneko sarbide estandarrak

Telefonoak aurrez definitutako zuzeneko sarbide hauek ditu. Zuzeneko sarbide horiek ezin dira aldatu edo ezabatu.

| Ekintza | Honetarako |
|---|---|
| Sakatu deiak egiteko/jasotzeko egoeran. | teklatua blokeatzeko/desblokeatzeko |
| Sakatu deiak egiteko/jasotzeko egoeran | egindako deien zerrendara joateko |
| Sakatu | menu-sistematik irteteko eta deiak jasotzeko/egiteko pantailara itzultzeko |
| Sakatu gora edo behera | deiak jasotzeko/egiteko pantailako menua irekitzeko |

## Bizkor sartzeko zuzeneko sarbideen zerrenda aldatzea.

Zuzeneko sarbidearen menu-zerrenda aldatzeko:

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Acceso Rápido**

Horrela, bizkor sartzeko aukeren zerrenda irekitzen da. Bizkor sartzeko aukerak zerrendan daude 1-9 bitartean.

- Zenbakirik gabeko sarbide bizkorreko aukera bat aldatzeko, aukeratu eta sakatu **OPCIÓN** ( ) > **Asignar Tecla**
- Aukera bati ahots-etiketa bat esleitzeko, aukeratu eta sakatu **OPCIÓN** ( ) > **Etiqueta Voz**

## *Bizkor sartzeko zuzeneko sarbide bat erabiltzea*

Sarbide bizkorraren menuko zerrendatik funtzio bat aukeratzeko:

**Joan funtzio honetara:** (menu) > Acceso Directto
> *funtzioa*

# Telefonoaren beste funtzio batzuk

## Deia konferentzian



Lotu aktibatutako dei bat eta zain dagoen dei bat, solaskide guztiek elkarrekin hitz egin dezaten.

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** teklatuko teklak | lehen pertsonaren zenbakia markatzeko |
| **2** | zenbaki horretara deitzeko |
| **3** **RETEN** ( ) (erabil badaiteke) **edo** > **En Espera** | lehen deia zain uzteko<br>hurrengo pertsonaren zenbakia markatzeko |
| **4** teklatuko teklak | zenbaki horretara deitzeko |
| **5** | bi deiak lotzeko |
| **6** **ENLACE** ( ) | dei guztiak amaitzeko |
| **7** | |

**Iradokizuna:** Konferentzia-deira solaskide gehiago sartzeko, egin berriro 3-6 urratsak.

## Deiak desbideratzea



Ahots-deiak, faxak edo datuak zuzenean desbidera ditzakezu beste telefono-zenbaki batera.

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Sin Red** | telefonoa deskonektatuta badago edo sarean ez badago desbideratzen du deia |
| **Sin Respuesta** | inork erantzuten ez badu desbideratzen du deia |
| **Si Ocupado** | telefonoak komunikatzen badu desbideratzen du deia |
| **Incondicional** | dei guztiak desbideratzen ditu |
| **No Disponible** | telefonoa deskonektatuta badago, sarean ez badago, komunikatzen badu edo erantzuten ez badu desbideratzen du deia |

## Deiak desbideratzeko aukera aktibatzea edo desaktibatzea

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Desvío Llamadas**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 (nabigazio-tekla) | desbideratzen hastea nahi duzun edo desbideratzeari uztea nahi duzun deietara joateko |
| 2 **SELEC** ( ) | deiaren desbideratzearen konfigurazioa ikusteko |
| 3 (nabigazio-tekla) | desbideratze-konfigurazio batera joateko (adibidez, **Si Ocupado**) |

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 4 **SELEC** ( ) | konfigurazioa aukeratzeko |
| 5 | **Activar** edo **Desactivar** aukerara joateko<br><br>***Oharra:*** ***Consultar*** *aukerak sarearen konfigurazioa egiaztatzen du.* |
| 6 **SELEC** ( ) | aukera hautatzeko |
| 7 teklatuko teklak | zein telefono-zenbakitara desbideratzea nahi duzun zehazteko |
| 8 **ACEPTR** ( ) | deiak sarera desbideratzeko konfigurazioa bidaltzeko |

***Oharra:*** *Prozedura hau beste dei-mota bateko desbideratzeak konfiguratzeko egin daiteke berriro.*

## *Deiak blokeatzea*



Deien blokeoak irteerako eta sarrerako deiak mugatzeko aukera ematen dizu. Dei guztiak, nazioarteko zenbakietarako deiak, desplazamendu-egoerako deiak (roaming) edo zure herrialdekoak ez beste guztiak blokea ditzakezu.

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Seguridad** > **Bloqueo Llam**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 | **Llam Salientes** edo **Llam Entrantes** aukeretara joateko |
| 2 **CAMBIO** ( ) | aukera hautatzeko |
| 3 | blokeoaren konfiguraziora joateko |

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 4 **SELEC** ( ) | blokeoaren konfigurazioa aukeratzeko |
| 5 teklatuko teklak | deia blokeatzeko pasahitza idazteko |
| 6 **ACEPTR** ( ) | pasahitza bidaltzeko |

## *Markaketa finkoa*



Markaketa finkoa aktibatzean, markaketa finkoko zerrendan azaltzen diren zenbakietara bakarrik dei dezakezu. Erabili funtzio hori irteten diren deiak aurrez zehaztutako telefono-zenbakietara edota herrialdeko, eskualdeko edo bestelako aurrezenbakietara mugatzeko.

### *Markaketa finkoa aktibatzea eta desaktibatzea*

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Seguridad** > **Marcación Fija** > **Activar** edo **Desactivar**

### *Markaketa finkoko zerrenda erabiltzea*

Markaketa finkoa aktibatu behar duzu markaketa finkoko zerrenda irekitzeko (ikus goian).

**Joan funtzio honetara:** > **Herramientas** > **Marcación Fija**

Markaketa finkoko sarrerak telefono-aurkibidearen sarrerak bezalaxe sortzen eta aldatzen dira. Markaketa finkoko sarrerak SIM txartelean gordetzen dira eta ez dute informazio hau ematen: **Tipo**, **Nombre Voz** edo **Indicador de Timbre**.

# Telefonoaren erabilera kontrolatzea

## Deien kontagailuak kontsultatzea eta zeroan jartzea



*Sarera konektatuta egondako denbora* esaten zaio operadorearen sarera konektatzen zarenetik sakatuta deia amaitzen duzun arte pasatzen den denborari. Denbora horretan, komunikatzen dagoela adierazten duen seinalea eta markatzen pasatzen den denbora sartzen dira.

**Kontagailuak sarera konektatuta pasatutako denbora adierazten du, baina baliteke operadoreak fakturatutako denborarekin bat ez etortzea. Fakturei buruzko informazioa eskuratzeko, jarri zuzenean harremanetan zure operadorearekin.**

Dei-kontagailua ikusteko:

**Joan funtzio honetara:** > **Llamadas** > **Temp Llam**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Última Llam** | Egindako edo jasotako azken deiaren iraupena. Kontagailua ezin da zeroan jarri. |
| **Todas Llams** | Kontagailu hori zeroan jarri zenetik egindako eta jasotako deien iraupena guztira. |
| **Duración** | Telefonoan metatutako dei guztien iraupena guztira. Kontagailua ezin da zeroan jarri. |

Deien kontagailua zeroan jartzeko:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 **RESTAB** ( ) | denbora zeroan jartzeko (hala badagokio) |
| 2 **SÍ** ( ) | zeroan jartzea berresteko |

## *Dei batean kontagailua erabiltzea*

Dei batean txirrin bat aldizka egiteko eta hainbat datu bistaratzeko moduan konfigura daiteke kontagailu bat.

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Llam Entrante** > **Temp Tiempo** > **Ver**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Temp Llam** | Uneko deiaren batez besteko iraupena bistaratzeko. |
| **Desactivar** | Deiak irauten duen bitartean ez du tenporizadorea bistaratzen. |

## *Kostuen segimenduaren kontagailuak ikustea*

**Joan funtzio honetara:** ⊜ > **Llamadas** > **Coste**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| **Crédito** | Kreditu erabilgarria. GSM sareko gastuen informazio-zerbitzuak krediturako muga bat finkatzen denean bakarrik eman dezake datu hau. |
| **Todos Costes** | Kontagailu hori zeroan jarri zenetik egindako eta jasotako dei guztiekin guztira gastatutakoa.<br><br>Balio hau zeroan jar daiteke **Realizadas** eta **Recibidas** kasuetan bereizita; beraz, baliteke **Realizadas** gehi **Recibidas** batuketan lortutakoa ez izatea **Todas Llams** aukerako balioaren berdina |
| **Ultima Llamada** | Egindako edo jasotako azken deian gastatutako zenbatekoa. Kontagailua ezin da zeroan jarri. |

## *Kreditu-datuak kontsultatzea*

### Kostuaren abisua aukera kontsultatzea

Kostuaren abisua aukeran harpidetzen bazara, kreditu erabilgarria kontsulta dezakezu.

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Estado Tfno** > **Crédito**

## *Kostuen segimendu-parametroak doitzea eta zeroan jartzea*

Kreditu-muga bat ezar dezakezu, deietan telefonoak kreditu erabilgarria bistara dezan. Kreditua agortzen ari denean, telefonoak jakinarazi egiten dizu, eta deia amaitzen du kreditua agortzean.

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Llam Entrante** > **Config Coste**

Hauek aukera ditzakezu: **Restablecer**, **Límite Crédito** edo **Moneda**.

## *Sare-konfigurazioa doitzea*

Operadoreak telefonoa sare batean erregistratzen du. Uneko sareari buruzko informazioa ikus dezakezu, telefonoak sarea bilatzeko modua alda dezakezu, sare gogokoenak zehatz ditzakezu eta dei bat galdu egin den edo sarearen erregistroan aldaketak gertatu diren adierazteko alertak aktiba ditzakezu.

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Red**

# Antolatzaile pertsonaleko funtzioak

## Egutegia erabiltzea

Egutegiaren funtzioarekin gertaerak, hitzorduak eta bilerak programa eta antola ditzakezu. Egutegia konfigura dezakezu, hainbat gertaera alarma bidez ohartarazteko.

***Oharra:** Egutegia erabili ahal izateko, ordu eta data zehatzak konfiguratu behar dituzu telefonoan (ikus 45. orria).*

Egutegian gertaerak programatu edo berrikusteko:

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Herramientas** > **Calendario**

## Astea ikusteko

Egutegiak, lehenik, asteko egutegia bistaratzen du. Beteta dauden lerroek edo laukiek programatutako gertaerak adierazten dituzte.



## *Eguna ikusteko*

Aukeratu egun bat eta sakatu **VER** ( ), eguneko gertaerak ikusteko.




## *Gertaerak ikusteko*

Aukeratu gertaera bat eta sakatu **VER** ( ), eguneko gertaerak ikusteko.



## Egutegian gertaera bat gehitzea

Ezinbestekoa da egutegiko gertaerei izen bat ematea. Gainerako datuak aukerakoak dira.

***Oharrak:***

- *Gertakizun bat sortu behar duzu, alarma bidezko abisua erabiltzeko.*
- *Telefonoak piztuta egon behar du, alarmak jo dezan.*

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Herramientas** > **Calendario** > *eguna*
ⓜ > **Nuevo**

| Sakatu | | Honetarako |
|---|---|---|
| 1 | **CAMBIO** ( ) | **Título** aukeratzeko |
| 2 | teklatuko teklak | gertaerarentzat titulu bar sartzeko |
| 3 | **ACEPTR** ( ) | gertaeraren izenburua gordetzeko |
| 4 | | beste eremu batzuetara joateko eta dagozkien datuak betetzeko<br>Hasiera-ordua, iraupena, eguna, errepikatzeko tartea eta alarma-abisua ezar daitezke. |
| 5 | **TERMIN** ( ) | gertaera gordetzeko |

## Gertaeren datuak aldatzea

**Joan funtzio honetara:** ⓜ > **Herramientas** > **Calendario**

| Sakatu | | Honetarako |
|---|---|---|
